

# Klase komunitate baten hastapenak: Txantrea eraikitzen



NEREA PÉREZ IBARROLA

(Universidad Pública de Navarra. Instituto Gerónimo de Uztariz)

Aurrean den artikuluak 2009an egindako *Langile klasearen konformazioa. Iruñea 1950-1962: hurbilpen bat* ikerlanean du abiapuntua. Ikerketa hark 50eko hamarkadako Iruñeko langile klasearen errealitatea zuen aztergai, prozesu zabalago bat, frankismo eta trantsizio garaiko Iruñerriko langile klasearen konformaziorena, arakaten hasteko asmoarekin. Errealitate horren azterketa langile bizitzaren hainbat aspektutan arreta jarriz egin zen: fabrikari, lan baldintzak eta lan-harremanen markoa ikusi ziren; langileriaren antolakuntzaren hastapenetan, lehenbiziko erakundeen nukleoak eta gatazkak azalera ziren; eta hiriaren espazioan, batez ere langile auzoetako errealitateari erreparatu zitzaion.

Artikulu honek langile bizitzaren aspektu horietariko bat izango du ardatz: **auzoaren esparrua**. Britainiar langile klasearen osara prozesuari heltzeko E.P Thompson historialariak jorratutako ikuspegiaren klase esperientzia kolektiboek jokatzen duten papera aintzat hartuta, auzoa, klase esperientziak bizi eta transmititzeko espazio bezala aztertuko dugu.<sup>1</sup> Horretarako, Iruñeko langile auzo baten, Txantrearen, historiaren berrirakurketa egingo da, ikuspegi horren arabera. Helburua orduan ez da auzoaren historia bat egitea izango, historia horretan klase komunitate bat nola osatzen hasten den ikustea baizik.

Azken urte hauetan frankismoaren garaiko langileriari buruz egin izan diren hainbat ikerketa hasi dira jada, nola edo hala, euren planteamenduak Thompsonen ikuspegiaren arabera egiten. Diktaduraren historiari buruzko lan orokorretan langile klaseak leku nabarmena hartu du beti erregimenaren aurkako oposizioari buruzko orrialdeen baitan; gaur egun, halaber, ikerketa berezitu anitz ditugu frankismoko langile klase eta mugimenduari buruz. Askotarikoak dira aipatutako ikerketa horiek: diktaduraren kronologia osoa aintzat hartzen dutenak edota epe zehatzei dagozkionak; esparru orokorretik abiatu eta bertakoeneraino; *langile mugimendua* ardatz hartzen dutenak, erakundeak, ekimen sindikala edo lan-gatazkak aztertuz, edota *langile klasea* zentzu hertsian ikergai dutenak, hots, zentzu existentzian, gizarte talde gisa, baldintza materialak, bizi-esperientziak edota klase kontzientzia eta klase identitatearen moduko kontzeptuei so eginez. Azken hauek dira, hein handi batean, Thompsonen moduko langileen *historia sozial* bat egiten saiatu direnak.<sup>2</sup>

Historia sozial honen erdigunean aipatu klasearen esperientzia kolektiboaren kontzeptuarekin topo egiten dugunean, langileria klase gisa osatzen duten zenbait

aspekturen azterketa egitearen beharrea jartzen gara. Hau da, Thompsonnek proposatu bezala klasearen eraketa, langileen esperientzia komun eta kolektiboaren metaketa prozesuaren araberrako gertaera historikoa bada, lehenik eta behin esperientzia hauek zeintzuk diren eta nola bizi diren jakin behar dugu. Modu honetan, lantegian eta hiri zein auzoaren espazioan ematen diren eguneroko bizipenak, lan eta bizi baldintzen bilakaera, bizimoduak eta ohiturak, tradizioak eta baloreak, errituak eta sinbologia, harreman sozialak, sozializazio esparruak, eta aisialdia bezalako elementuak, aztergai dira, langileen esperientzia kolektiboak diren heinean.

Zentzu honetan, auzoa bera eta auzoko bizitza, klase esperientzia komun eta kolektibotzat jotzen ditugu. Auzoak ez dira bakarrik langileek euren etxeak dituzten lekuak; auzoetan langileek euren bizitza soziala egiten dute, euren egunerokotasuna sufrizten dute, euren harremanak garatzen dituzte, bizipenak eta ideiak elkartrukatzeko dituzte... berauetan langileek klasearekin topo egiten dute eta elkartzeko horretatik, euren burua aintzat hartu eta klase terminoetan definitzen duten auzo-komunitateak sortzen dira. Honela, auzoek komunitate kontzientzia indartsuak garatzen dituztenean, komuneko esperientzia hauetatik abiatuta egiten dute: *«bizipen berberak, transmititzen den ideologia berbera, amesteko diren helburu askatzaile berberak»*.<sup>3</sup> Artikulu honen helburu nagusia beraz, auzoan bizi diren esperientzia kolektibo hauek, langile klasearen osatze prozesuan egiten duten ekarpenaren inguruko hausnarketa planteatzea da.

«Desarrollismoaren» garaian, industrializazio prozesu berantiar eta bizkorra eta hiri handienetan abian jarri zen hirigintza basatiak, halako langile auzuneak biderkatu zituen estatu espainiar osoan zehar. Industria handien kokatzeak eta nekazal eremuetatik hirirako norabidean zihoan emigrazio fluxu etengabeak, hirien kontrolik gabeko hazkundera ekarri zuten berekin; populazio hazkundera eusteko, hirietako periferiatan, langile kokalekuak eta etxebizitza merkearen promozioak pilatzen hasi ziren, langile populazioa hirietako puntu zehatzetan kontzentratuz. Honela jaiotzen dira langile klasearenak eta langile klasearentzako izango diren berezko esparruak: langile auzoak, langile klase berriaren konformaziorako eszenatoki kolektiboan bihurtuko direnak eta beren espazioaren barruan langileek bizi dituzten esperientzia kolektiboetatik abiatuta, auzo identitate propio eta autonomoak garatzen dituztenak.

Frankismoaren garaian hiri handienetan sortu ziren auzune berri hauek, lehen momentu haietan, masa kultura eta Estatuaren ekimenetatik kanpo geratzen ziren heinean, errealitate propio eta independente gisara osatu ziren.<sup>4</sup> Bilbo, Bartzelona edota Madril bezalako urbe industrial erraldoietan prozesu hau oso agerikoa izan zen, hirigunearen inguruan auzo, behe-auzo eta herri sateliteak biderkatzeraino. Hauen hazkundera hiri-erdigunearikiko loturarik gabe emango zen, behe auzo hauetariko asko hiriaren errealitate at utziz eta berauetan berezko errealitate berriak sortuaz. Iruñea halako hiri industrial erraldoi bat ez izan arren, periferian sortu ziren auzoek, Bilbo, Bartzelona eta Madril moduko hiri handietan egin bezala, espazio sozial bereziak sortu zituzten. Bereziak ziren berezko biztanleria jasotzen zutelako eta

berezko problematika bati aurre agin behar ziotelako egunerokotasunean, azken batean, berauetan berezko klase esperientzia kolektiboak bizi zirelako. Honela, auzoetan osatu ziren aipatu errealitate propio hauetatik, aurrerantzean, berezko kultura komunitarioak sortuko ziren, auzoetan garatu ziren harreman eta elkartasun sareen bitartez helarazi ziren auzo identitate autonomoak, alegia.

Modu honetara, auzoetan komunitateak sortuko dira, euren burua klase terminoetan definituko duten auzo komunitateak. Auzoetan klase esperientzia kolektiboak ematen dira: etxebizitza edota lana topatzeko harreman sareak, sostengu, elkartasun eta familia sareak, sozializazio esparruetan ematen diren bizipen eta ideia elkartrukeak edota auzokideen kondizio sozial berdina eta bizi baldintzen homogeneotasuna, esate baterako. Esperientzia hauen bizipena izango da, hain zuzen, auzoko bizilagunak euren burua komunitate baten partetzat ezagutzera eramango dituen. Prozesu luze bati buruz ari gara orduan. Honen arabera, langile klaseari berezkoak zaizkion esperientzia kolektibo horien ondorioz, komunitatea klase terminoetan definituz joango da, klasea eta komunitatearen artean harreman osagarria jaioko delarik: klase identitateak auzo identitatea gorpuzten laguntzen badu, auzo identitate autonomo eta komunitarioek, klase identitatea indartzen lagunduko dute ere.

Era berean, hizpide ditugun auzo komunitate hauek, klase esperientzia kolektiboekin batera eman zen *berreraikitze* kulturalean, erlijiosoan eta sozialean funtsatu zen prozesu homogeneizatzaile batetik abiatuta osatu zirela esan dezakegu. Bizilagunak auzo espazioaren berrirakurketa komunitarioa egitera eraman zituen prozesua izan zen, auzokideen ezaugarri sozial, kultural eta politiko berberak eta bizilagun hauek hiriko egitura sozioekonomiko berrian betetzen zuten papera, komunitatea definitzen zuten elementu nagusi bezala lehenetsi zituena.<sup>5</sup>

Auzoko bizilagunen ezaugarri sozial, kultural eta politikoei dagokienez, auzo komunitateen berezko identitatea definitzen lagunduko zuten elementu nagusiak honakoak izango zirela esan daiteke: alde batetik eta ezaugarri sozialen arloan, auzokideak estatus sozial apalekoak eta langile industrialaren kondizio sozialekoak izatea, hala nola egunerokotasunean bizi baldintza berdinei eta zailtasun zein arazo kolektibo berberei aurre egin behar izatea; eta bestetik, arlo kulturalean, tradizio, ohituta eta bizimodu antzekoak konpartitzea edota nekazal munduko kulturatik ekartzen zituzten kode kultural zaharrak, hiri kulturaren kode berrietara egokitu behar izatea.

Kultur arloko elementu hauek lotura zuzena izan zuten auzokideen ezaugarri politikoekin. Batez ere emigranteen eskutik hirietara eta auzo berrietara iritsi ziren tradizio politiko errepublikar ezkertiarak izan ziren neurri handi batean, auzo komunitateetan zabaldu ziren ideologiak.<sup>6</sup> Auzoaren espazioan eman zen iragan errepublikarreko elementuen elkartzea, auzoko harreman sareen bitartez emango zen hauen ideien hedatzea eta langile kultura zahar haien eta kultura berrien arteko topaketa oinarritzekoak izan ziren auzo komunitateek, erreferentzia politiko eta kultural hauen arabera, euren burua klase terminoetan aintzat har zezaten.

Elementu hauek guztiak auzoetan kultura komunitario propioak sortu zituzten. Berezko kultura berri hauek, Xavier Domènech historialariak ongi zehazten duen moduan, kultura katoliko berriaren eta tradizio errepublikarreko ezkerreko kultura zaharren uztartzetik jaioko ziren.

Kultura katoliko sozial berria hainbat agenteren bitartez esku hartzen hasi zen langile auzune berrien bizitzan. Hartara, katolizismo soziala helarazteko kanal eta sarerik erabilienak gizarte-laguntzaile ezberdinen ekimenak, Acción Católicaren jantoki sozial edota langileentzako gaueko eskolak, auzoetako parrokiek betetzen zuten erdigune sozial gisako papera eta, batez ere, langile erakunde kristauek auzoko zentroetatik sustatzen zituzten jarduerak izan ziren. Katolizismo sozialak langile auzoetan jokatu zuen paper hau, urte haietan elizak konpromiso sozialaren alde eman zuen jauzi kualitatibo orokorrago baten ondorioztat jo dezakegu. Errealitatea eraldatzeko ekin-tza soziala aldarrikatzen zuen konpromiso honen bidetik, HOAC eta JOC bezalako langile erakunde kristauek, euren jarduera eta hizkeraren bitartez, auzoetan klasearteko borrokaren errealitatea azaleratzen zuen, balore anti-kapitalistak nagusi zituen eta auzo komunitatea langile komunitate bezala irudikatzen zuen, irudimen kolektiboa barneratzen eta zabaltzen lagundu zuten.<sup>7</sup> Txantrearen kasuan, auzo komunitatea sortzen hasi zen momentuan, eragin kultural eta sozial handiena izan zuten elementuak, katolizismo sozial berri honen esparrutik etorriko ziren. Kontutan hartu behar dugu, orokorrean nafar tradizio kultural eta bizitza soziala, katolizismotik zetozen erreferentzia kultural eta sozialei oso lotuak egon direla, eta beraz, Katolizismo sozialaren eragina halabeharrez izan behar zuela agerikoa bai Iruñean zein Nafarroan. 50eko hamarkadan, orduko Iruñeko langileriak bizi zituen klase esperientziak, erreferentzia kultural hauen arabera irakurri eta barneratuko zituzten batez ere.<sup>8</sup>

Tradizio errepublikarreko kultura ezkertiarra, arrazoi ekonomiko eta politikoengatik hirira joan ziren emigranteen bidez sartu zen langile auzoetan. Kultura ezkertiarrek auzoko kultura komunitarioan izan zuen eragina argitzeko, kultura hauen bilakaeran arreta jarri beharko genuke, hots, mantentzen diren tradizio zaharrak azaleratu eta ezkerreko kultura politiko berriekin zein modutan lotzen diren ikusi. Nafarroan eta bereziki Iruñean, ezkerreko tradizio kultural hauen biziraupen eta eragina nabariagoa egingo da, bereziki, 60ko hamarkadatik aurrera, Nafarroaz besteko probintzietako emigrazio mugimenduen orokortzearekin, ezkerreko kultura politiko tradizionalak errotuak zituzten bazterretatik langileak iristen hasi zirenean. Honek ez du esan nahi Nafarroan berez, ezkerreko substratu kultural bat egon ez zenik, baina egia da, esan dugun bezala, orduko nafar gizartearen gailentzen ziren erreferentzia kulturalak, erlijiozkotasunari askoz ere lotuagoak zeudela; ondorioz, emigranteen etorrera masiboa funtsezkoa izan zen, neurri handi batean, ezkerreko kultura politiko tradizionalen erreferentzia langile populazio sektore garrantzitsuengan nagusi izateko.<sup>9</sup>

Osatutako kultura komunitario hau, auzoetan barna, berauetan garatutako harreman eta elkartasun sareen bitartez zabaldu zen. Auzo komunitateen osaketa prozesuaren hastapenetan, sortzen ziren lehen harreman sareak, etxebizitza eta lan-

postua aurkitzen laguntzen zuten sare familiarak izan ohi ziren; gerora, sare hauek, egunerokotasunean eta elkarbizitzan sostengua eta elkartasuna bermatzen zuten konfiantzazko sare bilakatu ziren. Oinarrizko sare hauetatik abiatuta, eta auzoetan sortu ziren lehenbiziko sozializazio esparruek irekitako kanalen bitartez, harreman sare hauek bilakaera prozesu jarraikor bat bizi izan zuten, 60ko hamarkadaren amaieran eta 70eko hamarkadaren hasieran langile erakunde, talde politiko eta bizilagun elkarteak sortu ziren arte.<sup>10</sup> Esan daiteke orduan, prozesu guztian zehar funtzionatu izan zuten harreman sare hauetatik elkartrukatzen eta transmititzen ziren esperientzietatik osatuko zirela komunitate eta klase identitateak.

Auzo identitate komunitarioa eta klase identitatea harremanetan jartzerakoan, ez dugu langile auzoetan garatu ziren kultura politikoen gaitasuna gutxietsi behar gutxiengo batek ordezkatzeko zituela argudiatuta. Izan ere, gutxiengo hori langile klasearen sozializazio eta komunikazio nukleoen erdigunean egon zen momentu oro eta honek, elementu hauek, harreman sareak auzoetatik fabriketara eta fabriketatik auzoetara zabaltzeko bitarteko nagusi bilakatu behar zituen nahi ta nahiez. Beraz, kultura politikoak ordezkatzeko zituzten «gutxiengo» honen ekarpen garrantzitsuenetarikoa bat, harreman sareak bi norabideetan zabaltzea eta honela bi espazioak, auzoarena eta fabrikarena, uztartzea izan zen.<sup>11</sup> Honi esker, langile mugimenduak, ekintza kolektiboak aurrera ateratzeko baliabide berriak aurkitzeaz beste, elkartasun forma berriak lortu zituen auzo komunitateetan. Auzoaren espazioak honela dimentsio berri bat hartzen du, izan ere, harreman sareak bi norabideetan zabaltzearekin baino ezingo zuten lortu 60ko hamarkadaren amaierako eta 70eko hamarkadako lan gatazkek jaso izan zuten sostengu soziala.

Txantreak auzoaren espazioaren azterketa interesgarria egiteko osagai asko biltzen ditu. Lehenik eta behin, hirigunetik aparte, periferian eta ibaiak bestaldean kokatzen den esparrua da; hastapenetan, nagusiki langile populazioa jaso zuen auzoa izan zen, hasiera batean auzoaren eraikuntzaren proiektua, prestazio pertsonalaren sistemaren bitartez, euren etxeak eraikiko zituzten langileei zuzendu zelako; lehenbiziko urteetatik berezko auzo bizitza dinamikoa garatu zuen; frankismoaren amaierako urteetan eta trantsizioan kontzientzia sozio-politiko agerikoa azaldu zuen; eta batez ere, urte haietan garatutako langile auzo edo auzo gatazkatsuen irudian oinarritutako auzo identitate propio eta indartsua mantentzen du gaur ere auzokide askoren artean.

Artikulu honen asmoa beraz, auzoan ematen diren klase esperientzia kolektiboak azaleratu ahal izateko, Txantrearen historiaren berrirakurketa bat egitea izango da.<sup>12</sup> Horretarako, Txantreak, auzoaren hastapenetan, bere burua auzo-komunitate ezberdindu gisa definitzera eramango duten faktore eta elementuak aztertuko ditugu, Txantrea auzo komunitate moduan osatzera eramane zuten prozesua, langile klasea konformatuko duen prozesuan ematen den esperientzia metaketaren parte izan zelako ikuspuntutik begiratuta. Kasu honetan orduan, auzoak klase esperientziak dira, eta klase esperientziak diren heinean, berauetan sortzen diren auzo komunitateak, *klase komunitateak* osatuko dituzte.

## 1. Auzoaren jaiotzaren testuingurua

Txantrea 1950eko martxoan hasi zen eraikitzen. 50eko hamarkadako testuinguru konplexua izan zen. Kronologikoki gerraostearen eta «desarrollismoaren» epeen artean kokatua, 50eneko urteak «giltzarri» kontsideratu izan dira erregimen frankistaren inguruko historiografian. Hala ere, hamarkada hari buruz egin diren eta egiten ari diren ikerketa berriek erakusten duten bezala, hamar urte horiek ez ziren soilik etapa baten eta bestearen arteko trantsizio tartea izan. 50eko hamarkadan bizi izan ziren greba orokorrek, ikasle gatazkek, hitzarmen kolektiboen legearen aldarrikapenak edota egonkortze planaren abiatzeak, aipatu bi epeen arteko jarraikortasuna adierazten duten heinean, 60ko hamarkadan bizi izan ziren eraldaketak ulertzerik ez dago 50eko hamarkadan gerraosteko epea itxi zuten aldaketak kontutan hartu gabe.

Aldaketa hauek itxuraz txikiak, baina nabariak izan ziren Iruñean.<sup>13</sup> 1951 eta 1956an hiriak bizi izan zituen greba orokorrak, arazo sozioekonomiko larriekin (nafar nekazal munduaren krisia, etxebizitzaren arazoa eta, batez ere, soldaten eta bizitzaren kostuaren arteko desoreka) eta autarkiarekin amaituko zuen politika ekonomiko berri bat martxan jarri behar zelaren adierazle izan ziren; baina greba hauek, aldi berean, Iruñean hainbat aldaketa garrantzitsu ematen ari zirela azaleratu zuten ere. Greba haietan parte hartu zuen langileriaren presentziak, Iruñeak jada hazkunde industrial martxan jartzeko oinarrizko enpresa egitura bat zuela eman zuen aditzera, aitzinetik jada hiriko egitura industrialaren parte ziren enpresek Huarte taldeko enpresak kasu- eta urte hauetan ezarri ziren garrantzizko enpresa berriek osatutakoa: Inquinasa (1941), Azcoyen (1945), Torfinasa (1955), Eaton Ibérica (1958) edota Potasas de Navarra (1960).<sup>14</sup> Honekin batera, 50eko hamarkadan abiatzen diren aldaketa nagusiak hiriaren hazkundera —oraindik motela baina jarraikorra—, periferian hedatzen hasi ziren auzoak eta emigranteen etorrera geroz eta ageriago bat izan ziren.

Iruñearen hiri-hazkundera etxebizitza merkearen sustapenaren bitartez egin zen, periferian, aldez aurreko nukleo txikietatik abiatuta, langile kokalekuak sortuz. Nukleo hauek, gerra aurretik jada, etxebizitza merkearen arazoari erantzun azkarra eman nahian, espontaneoki sortuz joan ziren asentamendu anarkikoak osatu zituzten, planeamendu urbanistikoetatik at eta harresietatik kanpo: lantegiekin eta fabriken jarduera industrialarekin nahastuta agertzen ziren etxebizitza multzoak Iparraldeko estazioaren zonaldean; Arrotxapean, langile eta industria kokaleku txiki goiztiar bat eta euren baratzeak lantzen zituzten nekazariak elkartzen zituen eremua; baratzeak eta landa etxeek osatzen zuten Magdalena auzoan; hegoaldean, goi-lautadako zelaietan, soroetan eginiko egonleketan populazioa, etxe txikiak eta baratzeak biltzen zituzten Donibane eta Iturramako auzo zaharretan; *Mochuelo* auzoan, non soro eta baratzen ondoan, ostatuak aurkitzen ziren; eta Iruñea ondoko udalerrietan, batez ere Atarrabian, Huarten eta Burlatan, landako etxebizitzek eta industria tradizional txikiek osatutako kokalekueetatik abiatuta.<sup>15</sup> 50eko hamarkadan eremu hauetan jarraitua izanen zen etxebizitza merkearen eraikuntza eta honek berekin ekarri zuen langile

klase, etorkin eta populazio sektore xumeen finkatzearen ondorioz, nukleo hauek langile-auzo bilakatuko ziren aurrerantzean.

Erregimenak etxebizitzaren arazo larria arintzeko martxan jarri zuen etxebizitza politika erabakigarria gertatu zen horretarako. Populazio hazkundeak, emigrazioak eta hiri kontzentrazioaren prozesuak, etxebizitza arazoa benetan larritu egin zuten hirietan. Honela 50eko hamarkadatik aurrera, etxebizitzaren arazoa konpontzea erronka bat izan zen erregimenarentzat. Arazoa gehien sufritzen zuten langile eta sektore xumeen babesle bezala agertu nahian, etxebizitza merkearen eraikuntza diru-laguntzekin bultzatu zuen, baina promozio hauek hirietako zonalde zehatzetan biltzerakoan, hiri espazioaren banaketa funtzional eta kasik klasista gertatu zen langile populazioa puntu zehatzetan ezarri ahala.

Etxebizitza merkearen eraikuntzak ez zuen ez Nafarroan ez Iruñean etenik izan hamarkada osoan zehar<sup>16</sup> eta hiriburuan, etxebizitza merkearen eskaintza sustatzeko hainbat ekimen abiatu ziren. Diru-laguntzek babestuta, obra gehienak *Patronato Benéfico de Construcción «Francisco Franco»* erakundeak edota *Obra Sindical del Hogar* Sindikatu bertikaleko atalak sustatu zituzten. Hala ere, bestelako promozio ereduak eman ziren eta, Inkuinasak Etxabakoitzen egin zuen bezala, enpresek euren langileentzat eraikitzen zituzten etxe-multzoak topatzen ditugu Iruñean urte hauetan.<sup>17</sup>

Etxebizitza merkea sustatzeko ekimenak hiriaren zonalde konkretuetan abiatzen ziren heinean, hiri espazioaren banaketa sozial bat gauzatzen hasi zen. 50eko hamarkadan diru-laguntzaz babestutako etxebizitza multzo gehienak periferiako auzo eta zonaldeetan eraiki ziren, ingurubidean populazio xumearentzako nukleoak osatuz. Etxebizitza politika, modu honetan, hiriaren hierarkizazio sozialerako faktore izan zen, gerora periferian langile eta sektore xumeentzako espazio sozial bereziak osatuko zituelako eta honekin, hiriaren banaketa klasista bat erdietsiko zelako.

Hiriaren banaketa klasista, hiri espazioan ematen den espezializazio funtzionalaren eta estratifikazio sozialaren arteko harremana estutzen denean gertatzen da; hau bera, adibidez, oso agerikoa izan ohi da hirietan, zonalde industrialei, langile populazioak definitzen duen espazio sozial zehatz bat dagokienean. Honen atzean, hiriaren espazio berriak irizpide sozioekonomikoen arabera sortzen dituen hirien hazkunde prozesua bideratzeko eredu jakin bat dago. Haren arabera, hirietan, ezauzgarri sozial oso zehatzak izango dituzten espazio fisikoak sortzen dira eta honekin batera, hiri espazioak benetako estratifikazio soziala azaleratzen duen egitura urbano hierarkizatua agertuko du.

50eko hamarkadan Iruñea etxebizitza merkearen eraikuntzaren erritmora hazi zen. Urte hauetan, auzo berriak sortu ziren, aurretiko auzo zaharrak sendotu ziren eta Iruñea ondoko udalerrriak zabaldu ziren. Hiriaren hazkundera hain bat-batekoa eta bizkorra izan zen, non 1957an hiri-antolamendurako plan orokorrarekin kontrolrik gabe ematen ari zen urbanizatzeko hori antolatuzeko saiakera egin zela: ordutik aurrera, hiriaren goi-lautada kalitatezko bizitegi-auzo bihurtuko zen, haren periferiarekin -Iturrama, Ermitagaña eta Donibane, Arrosadia eta Etxabakoitz- eta ibaiatz bestaldeko

iparraldeko zonaldearekin konparatuta; azken honetan, Txantrean, Arrotxapean, Sanduzelain, Berriozarren, Antsoainen, Burlatan edota Atarrabian, tailer, biltegi eta fabrikekin batera, etxebizitza merkerako promozioak bilduko ziren; planaren ondorioz horrela, «goi-lautada eta Arga ibaia, erabilerek eta talde sozialek bereziko zituzten muga sinboliko» bilakatuko ziren.<sup>18</sup>

## **2. Patronato benéfico de construcción «Francisco Franco» eta etxebizitza merkearen promozioa: langile nukleo berri bat ibaiaz bestaldera**

Txantrea, harresietatik kanpo, Arga ibaiaz bestaldera, iparraldeko periferian eta baratza eta landetxez osatutako Magdalena auzo zaharraren ondoan eratutako auzoa izan zen. Gogo paternalistak gidatutako etxebizitza politikak, politika hark sustatzen zuen etxebizitza merkea eraikitzeko ekimenak eta erregimenak babestutako erakunde benefiko batek bultzatuta, bertan biziko ziren langileek hutsetik eraiki zuten, euren eskuekin. Txantrea, haren sorreratik, hiriaren zabalkunderako zonalde jakin gisa ulertu behar dugu, gizartearen sektore konkretu bati, langileriari, zuzendutako etxebizitza eskaintza merkea sustatzeko esparru gisa.

Auzoaren eraikuntza, ongintzazko erakunde baten ekimenez gauzatu zen, *Patronato Benéfico de construcción «Francisco Franco»* erakundearen proiektu batetik abiatuta. Proiektu hori, Espainiar estatu osoan bizi zen etxebizitzaren arazo larria arintzera zetorren. Izan ere, patronatu hura Etxebizitzaren Institutu Nazionalaren babespean jaioa zen, institutuak errenta baxuko etxebizitzaren eraikuntza sustatzeko, entitate zein partikularren alde babes neurriak aurreikusi zituenean. Patronatuaren helburua, etxebizitzaren babeserako erregimen hura aplikatzea, etxebizitza merkearen eskaintza egitea zen.

1949an, orduan Nafarroako gobernadore zibila zen Luis Valero Bermejok patronatuaren eraketarako tramiteak hasi eta urte hartako irailean bertan, Etxebizitzaren Institutu Nazionalak haren estatutuak onartu zituen. 1950eko ekainaren 10ean izan zen fundazio ofiziala: Valero Bermejo bera eta Iruñeko goi-klasea, alkatea, diputatuak, elizako ordezkariak, bankariak... erakundean bildu ziren, guztien artean eta erregimenaren izenean, gizarte sektore gutxietsien mesedetan, etxebizitza arazoa konponduko zuen ongintzazko izaeradun entitate eraikitzailea osatzeko. Modu honetan, erregimenaren politika sozialaren oinarri zen paternalismoaren adierazle izan ziren patronatuaren osaketa bera eta proiektuaren helburu benefiko eta asistentziala.

Patronatuaren estatutuetan, etxebizitzaren eraikuntzarako babes erregimenari heldu nahi izango zion edozein autoritate lokalek, proiektuen gauzapenerako beharrezkoak ziren lur-sailak erraztu beharko zituela xedatzen zen; honen arabera, Iruñeko udala etxebizitzaren eraikuntzarako lur-sailak patronatuari doan emateko beharrean zegoen. Udalak, proiektuarentzako hainbat kokagune aztertu ondoren, auzo berria iparraldeko periferian kokatzea erabaki zuen, Magdalena auzoaren eremuan. Lur-sailak erosi zituen eta patronatuari doan eman zizkion, osoko bilkuran hartutako erabakiaren ondoren. Erabaki honen arabera ere, udalak patronatuari eginiko emateak lur-sail haietan babes



erregimeneko etxebizitzak eraikitzen behartu egiten zuten, hori egin ezean, Udalak lur-sailak harenganatzen eskubidea gordetzen zuelako. Txantreako lehen lur-sailak etxebizitza eskaintza merkearen bitartez baino ezingo ziren populatu.<sup>19</sup>

Honakoa izan zen proiektua aurrera ateratzeko aurkeztutako lehenbiziko xedapena:

*«La tarea inicial para comenzar un grupo de viviendas del patronato benéfico de la construcción Francisco Franco es conocer la existencia en la localidad del grupo de hombres que con la suficiente capacidad de trabajo, se hallen decididos a resolver el problema de la falta de hogares que para su propia familia sienten».*<sup>20</sup>

Xedapen honek proiektua bereiziko zuten ezaugarri nagusiena aurreikusten zuten, prestazio pertsonala. Honek, Txantreako babes erregimeneko etxebizitza haiek beren hartzaile izango ziren langileek eraikiak izanen zirela zekarren. Hartara, patronatuak, eraikuntzako sindikatu probintzian sartutako nafar eraikuntza enpresa nagusienei Txantreako lur-sailtan partzelak eman eta eraikuntzarako beharrezkoak ziren materialak jarri zizkien; enpresek bere aldetik, euren langileekin lan taldeak osatu eta haien esku utzi zuten Txantrearen eraikuntza.

Beraz, Txantrea eraikitzen hasi ziren lehenbiziko langileak eraikuntza sektoreko langileak izan ziren. Guztiak, etxeen eraikuntza lanetan enpresaren bitartekaritzaren bidez sartu ziren; eta promozioan parte hartzeko aukera enpresaren eskutik zetorrenez, lan esparrua bihurtu zen etxea eraiki eta jabetzan lortzeko aukera ezin hobean. Lanean ematen ziren langileen arteko kontaktuak, modu honetan, Txantrearen eraikuntzaren inguruko informazioa lortu eta eskakizuna egiteko erabiliko ziren proiektuaren hastapenetan. Honek Txantreako etorkizuneko biztanleak bere kondizio sozialean berdintzen zituen: langileak, are gehiago, eraikuntza sektoreko langileak izango ziren, lan esparru berean bat egiten zuten langileak.

Lan esparruan lankideen esperientzia ezagutzeak, langile haietariko asko proiektuan izena ematera eramaten zituen. Lantokian ematen ziren harreman sareak izan ziren gehienetan, langileen artean, Txantrearen etxebizitza promozioan sartzeko biderik eraginkorrena; izan ere, sare hauetatik helarazten zen Txantrean bizitakoaren ereduaz beste, harreman hauei esker, hutsegiteren bat gertatzen zenean hutsune hori sare familiar eta laboralen bitartez betetzea posiblea zen. Oso ohikoa izan zen langile batek Txantreako lanari eutsi ezin eta proiektua uzterakoan, bere lekua familia-kide edota lankide bati uzten saiatzea, eta modu berean, lantalde batean bete gabeko postu bat geratzen zenean, lantaldeko kideek bere proposatzen zuten familia-kide, lankide edota lagun bat hutsune hori betetzeko.

Patronatuak bere aldetik, babes erregimeneko etxebizitzaren eraikuntzan parte hartu nahi zuten autoritate lokalei, obrak aurrera ateratzeko beharrezkoak zituzten gutxieneko azpiegiturak bermatzea eskatu zien, eraikuntza materialak lortzeko erraztasunak ematea eta eraikuntzarako lur-sailak kokatzen ziren eremuan ur eta elektrizitate iturri bat ziurtatzea. Gainerakoa, patronatuaren esku zegoen, arkitekto eta teknikoen kontratazioa, planoak eta diseinua eta eraikuntzarako elementu osagarriak, eskorgak, otzarak, pikotxak, palak, paletak... hormigoia-makina, oholtza

edota astoak bezalako bolumen handiagoko lanerako lanabesen ematea, eraikuntza enpresen eskuzabaltasunaren esku uzten ziren. Langileari honela lanerako azpiegitura osoa eskaintzen zitzaion, eta berak, eskaini ahal zuen gauza bakarra jartzen zuen, bere lan-indarra.

### 3. Eraikitze aldia

Obrak 1950eko martxoan hasi ziren. Eraikuntzaren lehen fasea, enpresek euren langileekin antolatutako lan-taldean arabera prestatu zen; osotara zazpi talde osatu ziren, patronatuarekin lankidetzan ibiltzen ziren enpresa haina: Arrarás, Erroz, Huarte y Cía., Martinicorena, Brun, Barcos eta San Martín. A, B eta C izenekin ezagutuko ziren lehen kaleetan aurreikusitako etxebizitzak, lan-talde ezberdinen artean banatu ziren, atalka, eraikuntzarako espazioan.

Lan-taldeen dinamika oinarrizko faktorea izan zen etxeen eraikuntza prozesuan garatuko ziren **lan kolektiboa** edota **elkartasuna** bezalako kontzeptuak barneratzeko orduan. Kontzeptu hauen barneratze prozesuaren atzean, taldeko guztien artean obren arduradun izateko lankiderik trebeena aukeratzea, bakoitzaren gaitasunen arabera lan-banaketa egitea eta lan gogor eta latza aurrera ateratzeko elkarren laguntza behar izatea bezalako esperientzia kolektiboetatik ateratako irakaspenak topatzen ditugu.

Lan taldeen osaketari dagokionean, funtsezkotzat jotzen zuen patronatuak, beti ere talde bakoitzaren barne osaketaren arabera, gutxienez taldeko bizpahiru igeltsero egotea. Igeltsero hauekin batera, bestelako gremioen ordezkarien beharra ere azpimarratzen zen, nolabaiteko talde anitz bat sortu eta ogibide profesional hauekin eraikuntza prozesu osotuago bat lortzeko: ate, leiho eta zokaloen harriak prestatzeko harginak, zurginak, margolariak, iturginak... Gremio profesional hauetako kideek hainbat taldetan parte hartu zuten eta kasu hauetan ere, eraikuntza prozesuan beren ezagutza espezifikoan jardun beharreko momentura arte, obretan peoi lanak bete behar zituen gainontzeko taldekide guztiek bezala.

Egia esan, taldeen osaketarako gomendatutako ogibideen banaketa interdiziplinarra bermatzea zaila izan zen. Hainbat taldek profesio ezberdinak biltzen zituen diziplina arteko osaketa hori lortu zuen arren,<sup>21</sup> askok eraikuntza prozesuaren bitartean ogibide ezberdinak ikasi behar izan zituen, etxea eraiki ahala.<sup>22</sup> Norberarenaz besteko ofizio ezberdinak ikasi behar izateak erraztu egingo zuen lan-taldearen barneko lan-banaketa bidezkoa izatea, izan ere taldearen barruan lanak norberaren gaitasun eta ahalbideen arabera banatuak izatean, langile guztiek eraikuntza prozesuan jartzen zuten lana neurri berean baloratzen zen.<sup>23</sup>

Lan ezberdinen banaketaren printzipioa ere taldearen arduraduna izendatzeko orduan aplikatzen zen. Lan-talde bakoitzak kideen artean bere obraren arduraduna izendatzen zuen, eraikuntzaren gremioan trebeena zen langilea aukeratuz

*«[...] el jefe de grupo, que para eso era nombrado por todos en general [...] para dirigir la obra, que fue el señor Damián [...], un señor de San Martín de Unx, un albañil de los pies la cabeza, con una sabiduría fuera de serie».*<sup>24</sup>

Hala ere, zenbait taldetan, enpresak berak eraman zuen lan taldera enpresan alde zuzenetik obra arduradunaren kargua betetzen zuen pertsona bat lan-taldearen buru izateko. Honakoa Martinicorenaren taldearen kasua izan zen, kasu horretan, enpresak jarri izandako obra arduradunak etxea egin zuen bere taldearekin eta Txantrean geratu zen bizitzen.<sup>25</sup>

Lan-taldearen dinamikak berez eskatzen zuen eraikitze prozesuaren lanak kide guztien artean aurrera atera behar izatea. Guztiek lan egin behar zuten, neurri berean eta gogo beretsuekin, izan ere lan prozesu oso gogorra izanik, obrak aurrera ateratzeko modu bakarra lan taldeko kide guztien ahalegina zen. Azkenean, lan taldeko kideen arteko harremanetatik, batez ere elkarren laguntzaren beharraz jabetzerakoan, arazo pertsonalen gainetik zegoen elkartasun sentimendu indartsu bat jaio zen:

«[...] *es que si no, no podía ser de otra forma [...] había más hermandad, más compenetración [...] Cada cual ponía su interés, por ejemplo el que no sabía... ponía la fuerza, si había que picar para hacer zanjas... no había máquinas, sí, había que hacerlo todo a pico y para eso hacía falta voluntad*».<sup>26</sup>

Lan dinamika honen eta, hein batean, elkartasun sentimendu honen funtsa, guztiek helburu berdina konpartitzen zutela zen: eraikitzen ari ziren etxea, honakoa helburua eta saria zelarik aldi berean. Honela, lan egitea guztien betebeharra zen, saria guztientzat zelako, beraientzako eta lankideentzako. Ostera, gogor lan egiteko prest ez zegoenak, gogorik jartzen ez zuenak edota justifikaziorik gabe lanean huts egiten zuenak ez zuen tokirik lan-taldean, ongi egin beharreko lan kolektibo eta komunitarioa zelako. Kontutan hartu behar dugu auzolanean burututako obra izateaz aparte, lan komunitarioa zela, hau da, langileak eraikitzen zuen etxea lan taldearentzako zela, ez beretzat propio. Proiektuak hasieratik xedatu zen etxebizitzaren esleitzea zozketaren bitartez egingo zela, behin lan-taldearen etxebizitza multzoa amaituta zegoenean; honek taldekide guztiak beren lana gogo eta interes handiarekin egitera behartzen zituen, inork ez baitzekien zein etxe egokituko zitzaion eta lana ongi egin behar zen norberarentzat, baina baita ere besteentzat. Txantreako lehen biztanle hauetariko askok barneratua du oraindik etxea eraikitzea nork bere buruarekin eta taldekideekin hartutako konpromisoa izan zela, behintzat langile guztientzako etxeak ongi eginak egotea nahi bazen, eta ez bakarrik norberarena.

Esan daiteke beraz, elkartasunaren kontzeptuaren garapena, etxearen eraikitze prozesuan lanak aurrera ateratzeko elkarren laguntza beharrezkotzat sentitzeak eta etxea taldekide guztientzat –eta ez norbanakoarentzat– egiten zela jakiteak zekarren esperientzia kolektiboaren emaitza izan zela, hein handi batean. Elkartasun sentimendu hau adieraziko luketen adiskidetasun jarrera anitz aurkitu ditzakegu eraikuntza prozesuak iraun zuen bitartean: hauen artean, edozein taldekideek gaixotasun edota arazo familiar larriengatik hartu beharreko hutsegiteak onartzeko konpromisoa izan daiteke adierazgarriena, hutsegiteak iraun bitartean taldekideek haren etxean lan egiten jarraitzen zuten,<sup>27</sup> are gehiago, taldekideren bat hildakoa gertatuz gero, gainontzeko kideek haren lana, hildakoaren familiaren mesedetan amaitzeko konpromisoa hartzen zuten ere.

«[...] si alguno se lesionaba o lo que sería, había que seguir haciéndole la casa, todos para él. Lo que ocurriría... a cualquiera le podía ocurrir, enfermo o lo que sea... y mientras estaría malo, los demás trabajando para él. Todo en comunidad. Uno está malo, pues ya estaremos otros. Otro día podías estar tú.»<sup>28</sup>

Auzoaren ondorengo eraikuntza fasean prestazio pertsonala eta lan-taldean metodologia mantendu zen, baina eraikuntza prozesuaren bigarren faserako, taldeen osara aldatzea lehenetsi zen: lan-taldeak ez ziren enpresaka osatu oraingoan, ez eta ekimena eraikuntza sektoreko langileei bakarrik mugatu ere. Eraiki ziren hurrengo etxebizitzak sektore ezberdinetako langileek osatutako lan-taldeen egin zituzten eta hauetan ere taldean igeltsereoren bat edota zurgin bat egotea saiatzen zen.

«Yo creo que fueron de muchos sitios, o sea, ya te digo, por ejemplo uno de la leche, otros abonos químico y gente así. Yo de Martinicorena, después otro carpintero, bueno, de otros talleres y así [...] estábamos aquí veintidós y cuando se empezó a hacer la cosa bien por dentro, ya cogimos un par de albañiles, porque no teníamos casi [...]»<sup>29</sup>

Lan-talde berri hauen artean nabarmentzekoa izan zen Gendulaineko meatze putzuetako langileekin sortutakoa. Txantreako *Meatzarien taldea*, 53an ustiatzen hasi ziren putzuetako 16 langilerekin osatu zen eta putzu haien irekierarekin populazio meatzariaren kokalekuarengatik sorrarazitako kezkaen aurrean hartu zen meatzariak barreiatzeko erabakia martxan jartzeko lehen pausuetako bat izan zen.<sup>30</sup> Meatzari hauek lan talde bat osatzeaz beste, haiek eraiki zuten kalean euren ofizioa eta haren identitatea errotu zuten eta egun ere, taldekideek kalean ezarritako hainbat ospakizun, bizilagun berrien eskutik mantentzen dira.

Eraikuntza prozesua lan baldintza gogor eta latzenetan atera behar izan zen aurrera. Lan baldintza gogor hauei aurre egin behar izanak lehen txantrearrak euren langile kondizioa azpimarratzera eramaten zituen; izan ere, bakoitzaren lan-eguna amaitzen zenean kondizio hori lantokian utzi ez eta Txantreara eramaten zuten, eguna hiru edo lau lanordu gehiagotan luzatuz. Txantreako lanak arratsaldeko sei-zazpitan hasten ziren, bakoitzaren lantokiko irteera eta Txantreara iristeko egin beharreko bidearen arabera.<sup>31</sup> Ordutik, gaueko hamarrak edo hamaikak arte, eta batzuetan –batez ere teilatuko xafiak prestatu behar zirenean– goizeko hirurak eta lauak arte lan egiten zen. Beraz ordutegi honen arabera eta batez ere neguan, obrak gaez eta argirik gabe egiten ziren.<sup>32</sup>

Astelehenetik larunbatera luzatzen zen lan-asteak, Txantrean jarraipena zuen igande goizetan. Igandeetako laneguna goizeko seietatik eguerdiko ordu-biak artekoa izaten zen. Hala ere, igandetan meza entzuteko agindu erlijiosoak betetzearren, apezpikutzak Josefinen elizan meza zerbitzu bat jarri zuen goizeko 5etarako. Langile guztiek meza hartara joateko betebeharra zuten etxearen lanetan hasi ahal izateko, beraz, igandeko laneguna, goizeko 5etan hasten zen.

Ordutegi gogor honetaz aparte, eraikuntza prozesuan zehar agertu ziren arazo material ugariri aurre egin behar zitzaion. Hainbat zonaldeetan lurren gogortasun eta gainazal areatsua zela medio oso zaila zen eraikitzea, lur-azpian topatzen ziren

putzuek langileak urez betetako baldeak etengabe ateratzera behartzen zituen gaue-ro<sup>33</sup> eta elektrizitate hornikuntzaren gabeziek eraikuntza prozesu osoa, hasieratik bukaeraraino, zaildu zuten. Honi, ematen zitzaizkien materialen kalitate urria eta askotan material beraren falta ere gehitu behar diogu. Materiala iristen ez bazen, ezin zen lanik egin, ezin zen eraiki eta obra gelditu egiten zen materialak iritsi arte. Hau gertatzen zenean, langileek ez zekiten noiz iritsiko ziren materialak eta badaezpada, egunero obretara jaitsi beharra zuten materialak jaso eta lanean jarraitu ahal izango zuten arte.

Patronatuak ematen zituen lanabesen artean ez ziren bolumen handiko eraikuntzarako tresnak aurkitzen. Hormigoi-makinak, oholtzak edota astoak enpresek jartzen zituzten, nahi izanez gero. *Auzolan Kultur Elkarteak* egindako lanean jasotzen diren lehen lan-taldeetako kideen hainbat testigantzek esaten dutenaren arabera, enpresak oso ongi portatu ziren euren taldeekin, Txantreara jaisteko bizikletak emateaz aparte, enpresa askok beren obrak gauzatzeko erabiltzen zituen tresna asko utzi baitzizkien Txantreako langileei. Hala ere, talde guztiek ez zuten laguntza bera jaso eta hainbatek ezin izan zuten hormigoi-makina bezalako oinarritzko tresna batekin ere lan egin «*entonces no teníamos nosotros tampoco... hormigonera ni nada de eso, todo había que hacerlo a mano, amasar y todos, a mano*». <sup>34</sup> Kasu hauetan, taldekide guztien lan eta ahalegina are beharrezkoagoa zen.

Etxearen eraikuntza prozesu hau orduan, auzoan bizi izandako lehen esperientzia kolektiboa izan zen, alde batetik langileek berek beren etxeak taldean eraiki zituztelako, esperientzia hori konpartituz; eta bestetik taldean eginiko lana izaterakoan, obraren lan baldintza gogorrek ere konpartitu zituztelako. Bestalde, taldean eraikitzearen esperientziak, lotura indartsuak eratu zituen talde bereko kideen artean eta baita ere elkarren ondoan lan egiten zuten taldeen artean, Txantrean sortu ziren lehen harreman sareak auzoa eraikitzen zen bitarte honetan sortuko zirelarik. Eraikuntzaren prozesuan jaiotako harreman sare hauek gerora, auzoaren espazio eta bizitza sozialean mantenduko ziren.

Modu honetan, eraikuntza prozesu beretik komunitate ezberdindu bat osatzen hasi zela esan daiteke, ez bakarrik auzoa eraikitzeke martxan jarri zen eredia komunitarioa zelako, baizik eta, bereziki, langileek euren etxeak eraiki ahala, komunitatea ere eraikitzen zutelako.

#### 4. Auzoaren hazkundera eta garapena

Auzoaren hazkunde eta garapenaren adierazle nagusia haren garapen urbanistikoa izan da. Geroz eta biztanle gehiago jaso ahala, auzoa handitu eta zabaldu egin da 1950 urtean lehen harria jarri zenetik gaurdaino. Auzoaren espazioan eman den zabalkundearekin batera, etxeen fisonomiaren eboluzioa da Txantrearen hazkunde ereduaren eboluzioa markatu duen beste elementu nagusia. 50eko hamarkadaren hasieran eraikitzen hasi ziren etxeak baserri-fisionomia batetan oinarrituta bazeuden, 60ko hamarkadako Iruñeko populazio hazkunderari eusteko eginiko auzoaren zabal-

tzeak, ordura arteko Txantrearen fisionomia erabat aldatu zuen eta espazioa ahalik eta gehien aprobeztatzeko, eraikinak garaiera ezberdinetan altxatzen hasi ziren. Honen adierazle nagusia 1968tik aurrera Orvinak deitutako zonaldeetan sustatu zen eraikuntza modua dugu, bederatzi garaieratan altxatzen ziren etxebizitza blokeak.

Auzoaren lehenbiziko bi faseak prestazio pertsonalaren bidezko eraikuntza moduari dagozkie (1950-1953). Lehen bi fase hauetako etxebizitzaren diseinuek, esan bezala, nekazaritza giroa aintzat hartu nahi zuten, Txantreari fisionomia ezberdindu bat emanez. Herriko etxeen antzera, garaiera bakarreko edota bi garaieratako etxeak ziren eta bakoitzak bere patio eta ukuilu propioarako toki aurreikusten zuten.

1954-1960 artean luzatzen den hurrengo fase batean, prestazio pertsonalaren bidezko eraikuntza modua, patronatuak zuzenean promotore ezberdinei agindutako etxebizitzaren eraikuntzarekin nahastu zen. Azken hauek hala ere, ez ziren promozio pribatuko eraikuntzak izan eta etxebizitzaren babeserako erregimenean eraiki ziren, etxebizitza eskaria patronatuan egiten zen eta patronatuak zozketaren bitartez banatzen zituen eskaria egina zutenen artean. Patio eta ukuilu propioa zuten bi garaieratako etxeekin batera (prestazio pertsonalaren bitartez eraikiak oraindik), hiru eta lau garaieratako blokeak altxatzen hasi ziren lehenbizikoz auzoan; etxebizitza multzo berri haiek, baratzea jada ez, baina patio komunitario bat gordetzen zuten blokeen artean, elkarbizitzarako guneak sortzeko. Prestazio pertsonalaren bidezko promozioaren amaierarekin, auzori fisionomia berezia ematen zion etxebizitza eredua alboratu zen. Ordutik aurrera, auzoaren hazkunderako eredua, hiriaren populazioaren hazkundeak eskatzen zuten eraikuntza bizkorraren beharren arabera izan zen: herriko etxeak, gora hazten ziren etxebizitza bloke bilakatu ziren, espazioa eta denbora ahalik eta gehien aprobeztatuz. Eredu berri honi jarraiki, patronatuak Txantrean egindako ondorengo promozioetan, 1962tik 1968ra, kale berriak lau eta bost garaieratako blokeak altxatuta osatu ziren. Patronatuak 1968an inauguratu zuten Txantrean egingo zuten azkeneko etxebizitza multzoa.

Ordura arte auzoan egin ziren eraikuntza obra guztiak patronatuak sustatutakoak izateak, auzoa jaio izan zen modu berean hazi egin zela adierazten du, hau da, instituzio benefiko batek egindako etxebizitza merkearen promozioaren bitartez. Honela, eta hiriaren banatze klasistaren prozesuak jarraitutako irizpideen arabera, halako promozioen bitartez zonalde konkretuetan gizarte sektore zehatzak kontzentratzea lehenetsi zen, Txantrearen kasuan, patronatuaren eskutik etorriko zen langileen sektorea.<sup>35</sup>

1968tik aurrera, auzoaren hazkundera enpresa pribatu eta aurrezki kutxen promozioek bideratuta izan zen. Txantrea eraikuntzarako parametro berrien eredura zabaldu zen, bai promozioen ekimenari dagokionean, baita etxebizitza multzoen fisionomiari dagokionean ere. 68az geroztik zabalgunerako hiru zonalde eraiki ziren, Orvina-k (*Organización de viviendas de Navarraren* akronimoa), lehena plaza baten inguruan eraikitako urbanizazio blokea 1968an bertan, eta hurrengo biak, bederatzi garaieratako etxebizitza bloke aurrefabrikatuak, 70eko hamarkadaren hasieran.

Auzoa, bere hazkunde eta garapen urbanistiko honen arabera, gizarte sektore konkretuendako gune bereizi bezala konfiguratuko zen hasieratik, baina baita ere, haren handitze eta zabalkunde prozesuan zehar. Honen ondorioz, Txantreako populazioa bere kondizio sozialean homogeneoa izan zen hazkunde prozesu hura iraun bitartean, bertan langile sektore eta sektore xumeak kontzentratu zirelako.

## 5. Eguneroko bizitza eta bizi baldintzak: komunitate homogeneo bat eraikitzen

Txantrea auzoa beraz, langile sektore eta sektore xumeetako populazioarekin konformatua izaterakoan, biztanleriaren gehiengoak, beren kondizio laboral zein soziala konpartitu zituen auzoaren espazioan. Eraikuntzaren lehen fasean, etxeetako egile eta biztanle guztiak eraikuntzaren sektoreko langileak ziren, ofizio ezberdinetakoak, peoiak, igeltseroak, zurginak, iturginak... baina guztiak Nafarroako hainbat eraikuntza enpresatako enplegatuak. Prestazio pertsonalaren bitartez eraiki zen bigarren fasean ere, egile eta biztanleak industria sektore ezberdinetako enpresen enplegatuak izanik ere, guztiek langileak izaten jarraitzen zuten. Gerora, nahiz eta prestazio pertsonalaren eredu alboratu, 50eko hamarkadaren erdialdetik aurrera auzoan abiatutako eraikuntza, diru-laguntzek babestutako etxebizitza merkeen promozioan oinarritu zen. Beraz, haren lan-kondizioari dagokionean, Txantreako jatorrizko nukleoa lehenik eta behin, langile profilekoa izan zen.

*«Aquí no vivió ningún capitalista [...] por ejemplo ni oficinistas ni... ¿Oficinistas aquí? ¡Bien y tú!»<sup>36</sup>*

Langile hauen artetik, jatorrizko iruinsemeak aurkitzen ditugun arren, gehien-go, Nafarroako herrietatik etorritako emigranteak ziren. Kasu hauetan, hirirako mugimendua eginda zuten jada eta ohikoena, Txantrea eraikitzen hasi aurretik Alde Zaharreko pisuren batean alokairuan, berrakuratuta, familiarekin edota beste familia batzuekin etxebizitza konpartitzen bizitzea zen.

Etxebizitzaren arazoa, konstante bat izan zen hazkundearen garaiaren bitartean. Emigrazioak eragindako populazioaren hazkunde bizkorak eta etxebizitza bat jabetzan lortzeko gizarte sektore xumeek zituzten zailtasunak, konponbide ezberdinak hartzera behartzen zituen langileak eta, batez ere, etorkinak. Jose Antonio Perezek, Bilborako hiru konponbide zehazten ditu: txabolismoa, konpartitutako etxebizitza eta «Ugazabandre» etxeak.<sup>37</sup> Iruñean ez zen urte haietan hiri industrial handietan –Bilbo, Madril, Bartzelona...– ezagutu ziren txabolismo kasuen antzekorik eman hiriaren zabalkuntza prozesuan eta langile kokalekuen bilakaeran;<sup>38</sup> baina beste biak, langile etorkinen integrazio prozesuaren parte izan ziren Iruñera iritsi zirenean.

Migrazio fluxuaren bolumenak eta hari eusteko instituzioen ezintasunak, etxebizitzaren gabezi larria kroniko bihurtu zuten. Beraz, funtsezkoa zen langileen eros ahamenarekin bat zetorren etxebizitza eskaintza sustatzea. Modu honetan, Txantrearen eraikuntzan parte hartu izan zuten langile guztiak alde aurretik etxebizitza gabezia-

ren arazoa sufritzen zuten eta Iruñean erresidentzia mota ezberdinen esperientziak biziak zituzten. Alokairua, bai gela baten forman edota pisu bat beste familiekin konpartitzea izan zen esperientzia ohikoena.

*«Vivimos unos meses con mi hermana en la calle Berrioplano y por mediación de un vecino de mi hermana que era administrador del que construyó la Colonia San Miguel, nos proporcionó a nosotros el piso en la colonia San Miguel. Fuimos a la colonia San Miguel y allí fuimos a vivir mi mujer y yo y otro matrimonio que se hizo casa con nosotros. Estuvimos cierto tiempo viviendo allí y al tiempo, pues tuve la oportunidad de hacer, de apuntarme para hacer... [Txantreako etxea]<sup>39</sup>*

*Cogimos en la calle de San Agustín dos habitaciones. Y allá tres cuatro meses habríamos estado, y pasamos a la calle Tafalla [...] Y ya cogimos el piso, 500 pelas pagábamos [...].»<sup>40</sup>*

Txantreako lehen biztanleriaren artean populazio emigrantearen portzentajea altua izan zen. Gehienak Nafarroako herrietatik etorritakoak ziren, baina 50eko hamarkadan, beste probintzietakoen etorrera jarraitua izan zen. «Txantrean Auzolan» aldizkariaren atzera begirako baten arabera,<sup>41</sup> auzora etorritako andaluziar emigranteen lehen taldea Jaengo Jimena herritik etorri zen etxebizitzaren bigarren fasea eraikitzen hasi zenean. Ezarri ziren lehenbiziko 27 etorkin hauek senide eta lagun anitz Txantreara etortzeko lorbidea izango ziren aurrerantzean. Jaendik Iruñerako migrazio fluxua orduz geroztik etengabea izan zen 60.hamarkadan, eta bolumen handikoa, egunero Iruñea-Jaén ibilbidea egiten zuen «Navarro-Andaluzia» autobus lerroak adierazten zuen moduan.<sup>42</sup> Txantrean jada Nafarroaz besteko probintzietako emigranteen presentzia nabaria zen 50eko hamarkadan, auzoa, «barrio extenso e inmigrante, babel de dialectos españoles orgullo de la hospitalidad Navarra, con una responsabilidad para nosotros de reeducación e integración» bezala aurkezten zenean.<sup>43</sup>

Emigranteen auzoa izateaz aparte, auzo gaztea zen ere. Lehenbiziko egile eta biztanle hauek askok etxea 17 eta 18 urterekin egin zuten, ezkongabeak oraindik edota ezkonberriak, familia Txantrean osatu zutenak. 1975ean Txantreako zonaldeak agertzen zuen egitura demografikoaren eboluzioak populazio gazte eta dinamiko baten ezaugarriak aurkezten zituen, ugalkortasun maila altuari eta zahartze maila urriari esker. Txantreak bere jaiotzaz geroztik eta hazkunde prozesu jarraikorra bizi izan zuen bitartean, populazio gaztea erakarri zuen, ez bakarrik hirira iritsi berri ziren etorkinak, baita ere etxebizitza eskaintza handiago eta merkeago baten bila Alde Zaharra eta Zabalgunea uzten zuen bertako populazioa, bikote eta familia gazteak gehien bat.<sup>44</sup>

Kondizio sozial beretsua konpartitzeak, auzoko bizilagunen bizi baldintzak, langile sektore eta gizarte sektore xumeei dagozkien bizi baldintza zailak alegia, oso antzerakoak izatea eragin zuen. Bizimodu eta biziraupenerako estrategiatatik hasi, eta egunerokotasunaren xehetasunetara iritsi arte, Txantreako lehen biztanleek egoera bereberei egin behar zieten aurre euren eguneko bizitzan: langile askok bizi mailaren minimoan bizirauten zuen, familia aurrera atera ahal izateko fabrikari aparteko orduak sartu behar ziren edota enplegu anitzetan ibili, etxea jabetzan lortu arren ez zegoen etxe hura altzairuekin hornitzerik...



«[...] *ya ves, para un jornal... y que ésta también ayuda[ba], que iba a una casa a limpiar... a donde podía: porque claro, oye, en aquellos tiempos los jornales eran ya sabes, no eran muy... pues eso, para tres hijos y las dos abuelas... nos arrimábamos como podíamos... si había para alpargatas, para alpargatas, y si no, pues mira, como decía yo, descalzo.*»<sup>45</sup>

1954-55 urteetako hainbat polizia informek islatzen zuten Iruñeko egoera sozialak<sup>46</sup>, bizi baldintza gogor eta latzak erakusten zituen: desoreka sozialak sakonak eta agerikoak ziren; soilik biztanleriaren sektore txiki bat bizi zen nolabaiteko erosotasunarekin eta populazioaren gehiengoa nekez iristen zen biziraupenera, erdiko klaseak eta klase xumeak miserian aurkitzen ziren; soldatak osatzeko asmoz, emakume asko hasia zen lanean eta langileek aparteko ordu ugari betetzen zituzten, enplegu-aniztasunera jotzen ez zutenean. Honakoa zen auzoaren egoera soziala orduko parrokoaren laguntzailea zen Manuel Elvira 1954 urtean Txantreara iritsi zenean:

«*Yo he conocido la época de la auténtica pobreza del barrio, el aspecto económico del barrio era muy humilde, el barrio se había nutrido de gentes que habían vivido subarrendadas en otras zonas de Pamplona, de pueblos, que vinieron a hacer su casica pero... vivían con lo puesto yo he ido a visitar enfermos y me he encontrado con la cama, una silla y el paraguas detrás de la puerta y se acabó.*»<sup>47</sup>

Era berean, bizi baldintza latz haiei aurre egiteko funtsezkoak izan ziren auzo eraikitzerakoan garatzen hasi ziren harreman sareak. Etxearen eraikuntza prozesuaren bitartean sortutako lotura estu haiek, etxea eraikitzeko elkarren sostenguaren beharraz haraindi, egunerokotasunean eta bizi baldintza gogor haietan bizirauteko funtsezko elementu bilakatu ziren:

«*El problema era que llegaba la semana y no tenías dinero y tenías que ir a la tienda y te dejaban, eso sí, te fiaban. Ibas por ejemplo el martes, el lunes, el día que sería y les decías, oye, dame tal y tal cosa, que ya te pagaré el sábado. Y el sábado pagabas [...] aquí no había uno mas rico que otro... si por ejemplo a mi me hacía falta, vamos a decir, aceite y no tenía, iba a la vecina y me daba aceite o si le hacía falta a ella y yo tenía, nos las arreglábamos... y todo lo que sería, pan y... todo porque oye, había veces que no tenías...*»<sup>48</sup>

Auzoaren ekipamendu eta zerbitzu sozialei dagokienean, ez dirudi Txantrea auzo-bizitza dinamiko bat izateko horniduren gabezia larria sumatzen zuenik<sup>49</sup>. Berandu samar, baina komertzio, denda eta elikagai establezimenduak zabaltzen hasi ziren, gazteek «Felix» tabernan izan zuten topagunea, zinema-antzoki bat ireki zen, 1951 urtean bertan jarri zen auzoko parrokiaren lehen harria, bi zerrategi zeuden, 1954ean Federico Mayo eskola nazional berria ireki zen eta 1952an monja salestarrak auzoan kokatu zirenean, kontsultategi txiki batean medikuntza zerbitzu minimoak eskaintzea lortu zen.

Egia da elementu guzti hauek auzo hornitu eta bere eguneroko bizitza errazten zutela; baina oster, ordurako bestelako periferiako auzoek autoritateen utzikeriaren ondorioz pairatzen zituzten oinarritzko arazoak, hainbat zerbitzu eta komunikazioen gabezien ingurukoak batez ere, salatu egiten ziren Txantreatik ere<sup>50</sup>. Oraindik auzo jaioberria zenean, Txantreatik *Diario de Navarra*ko «Reporter» delakoari bidaltzen zitzaizkion eskutitz eta kezkatan, arazo hauen adibide mordoa ikus dezakegu: garraio

publikoaren zerbitzu eskasiak sorrarazten zuen hiriarekiko inkomunikazioa, hornidura elektrikoaren hutsegite eta gabeziak, telefono zerbitzuaren beharrak... Kontutan hartu behar dugu langile auzoetako gabezi kolektiboez ari garenean, ez garela auzo haietako bizitza *dinamizatzen* duten elementuei erreferentzia egiten ari; kasu hauetan, bizilagunen kezka auzotik kanpo bermatu behar diren eta bermatzen ez diren hornidura eta azpiegiturei buruz ari gara, hau da, hiriak eta hiriko autoritateek auzoarekiko dituzten eta betetzen ez dituzten erantzukizunetaz.<sup>51</sup>

## 6. Sare eta esparru asoziatiboak

Prestazio pertsonalaren bitartez eginiko lehen etxeetatik eta Txantrean kokatu ziren lehen bizilagunengandik hasita, auzo komunitate propio bat osatu zen alde z aurretiko harreman sare eta eraikuntzaren esperientzia kolektiboak sortutako sareen konfluentziari esker. Jatorrizko nukleo honetan hasten da osatzen auzo espazioa langile klasearen esperientziarako eszenatoki kolektibo gisa. Orduan sortuko ziren harreman sare eta sozializazio esparruak aztertzea abiapuntu izango da gerora sare eta esparru hauek auzo espazioaren dinamikaren barnean nola ireki eta zabalduko diren ikusteko. Sare hauek 60ko hamarkadan egonkortu ziren, emigrazioaren jariora, belaunaldi berrien agerpena eta katolizismo sozial berriaren kultura zein langile mugimenduko militantzia bezalako elementu berrien ekarpenari esker. Prozesu horretan, gutxika, 50eko hamarkadan bere buruaz irudi bereizi bat egin zuen auzo komunitatea, klase terminoetan definitu zen.

Esan dugu jada, Txantrean harreman sare eta elkartasun sareen garapena eraikuntza prozesuan hasi zela. Hala ere, kontutan hartu behar dugu eraikuntza prozesu horren aurretik ohikoa izan zela proiektuan, alde z aurretiko harreman sareen bitartez sartzea, bereziki lan esparruko harreman sareen bitartez. Langileek Txantrearen eraikuntzan parte hartzeko aukera lan egiten zuten enpresaren bitartez lortzen zuten eta lan-taldeak enpresako langileekin osatzen zirenez, taldeetan bat egingo zuen kide askok alde z aurretik elkar ezagutzen zuela gertatu zen,

«[...] *porque trabajábamos juntos, ya nos conocíamos todos [...]. Es que siempre coincides con algún conocido de antes, o de soltero o de tal, porque como has estado, como has andado por la calle...*».<sup>52</sup>

Are gehiago, haietariko askok aukera izan zuen euren jatorrizko tokietan –Iruñeko Alde Zaharra edo herria–, lagun taldearekin edo «peña» bateko kide izatearekin osatzen zuen harreman sare informalarri jarraipena emateko, hau da, sare hauetako kide ziren eta enpresa ezberdinetan lan egiten zuen langile asko auzoan, eraikuntza aldiari lehenbizi eta egunerokotasunean ondoren, elkartu ziren.

«*Siempre tienes más amistad con unos que con otros. Claro, con Manolo [...] que era, cuando yo empecé a ir a La Única, era tesorero de La Única. [...] cuando yo vine aquí, que me hice socio de la única, me hizo el Abuelo, que era socio fundador de La Única. Y el Abuelo era abañil y trabajaba para Huarte. Y aquel fue el que me metió a mí en el ajo [...] de ahí mismo conocíamos a Chiquito, que también era socio de La Única.*»<sup>53</sup>

Modu honetan, Txantreara alde zuzeneko harreman sare informal zein laborekin zetorren langileak, eraikuntza prozesuak iraun zuen bitartean, sare horiek mantendu eta sendotu zituen eta eraikuntza prozesua amaituta, auzoaren egunerokotasunean eta sozializazio esparruetan berritu, zabaldu eta ireki.

Etxearen eraikuntza prozesuaren esperientzia kolektiboa funtsezkoa izan zen honetarako. Izan ere, lan taldeen funtzionamenduaren dinamikak, taldekideak enpresa bereko kide izan edo ez izan, alde zuzeneko elkar ezagutu edo ez ezagutu, elkartzasuna eta konpromisoa ezaugarri nagusiztat zituzten lotura estuak garatu ziren bizilagunen artean. Auzo espazioaren eguneroko bizitzan, harreman hauek etxeari, kaleari eta auzoari lotu zitzaizkion betiko.

«[...] recién venidos aquí [...] como si seríamos hermanos, ya te digo, llegaban las Navidades y nos juntábamos todos, llegaba la fresca y allí en la calle, sacábamos las sillas, porque entonces no había carretera (porque todo esto era viñas) y nos estábamos ahí a la fresca, a contar chistes...»<sup>54</sup>

Txantreako lehen biztanleak honela, auzoaren bizitza sozialean, kalea, ospakizunak, aisialdia eta taberna («Felix taberna») bezalako espazioak konpartitzen hasi ziren, aurrerantzean hauetatik abiatuta, sozializazio esparru berrien eta ekimen popularren forma hartuko zuten harreman sare berriak garatzeko.

### Sozializazio esparruak auzoaren espazioan

50eko hamarkadan Txantrean sortutako sozializazio esparru berriak Kirol Elkarteak, «Armonia Txantreana» lagunartea eta parrokiaren inguruan jaiotako jarduera sozialerako esparruak izan ziren. Auzoan sortu eta garatutako harreman sareetatik irtendako esparruak izateagatik nabarmendu ziren, hala ere, ez ziren izan orduan sortu izandako esparru sozial bakarrak eta Txantrean langileentzako eta gazteriarentzako erregimenaren esparru ofizialak, «Hogar del productor» eta «Hogar del Frente de Juventudes», ez ziren falta izan.<sup>55</sup>

**Unión Deportiva Hogar Chantrea.** Kirolari dagokionean, auzoko asoziazionismoak lehenbiziko urte haietan *Unión Deportiva Hogar Chantrea* izena hartu zuen elkarteak izan zuen adierazlea (gerora, *Unión Deportiva cultural Txantrea Kirol eta kultur elkarteak* izango denaren aitzindaria). Patronatuak Txantrearen eraikuntzaren lehen fasean jada, auzoarentzako kirol-talde batentzako espazioa aurreikusten zuen. 1952an jaioko zen espazio hura gauzatzeko asmoz, futbol zelai bat egiteko lursailaren donazioaren bitartez. Orduan, elkarteak sortu eta bere lehen zuzendaritza taldea osatu zen. Futbol-zelairako lursailarekin soilik eta eraikin sozialik gabe, lehen bazkideek euren bilerak auzoko «Hogar del productor»ean egiten zituzten. 1958an elkartearen kirol instalazioen inaugurazio ofiziala izan zen, igerileku olinpikoa, frontoia, Luis Valero Bermejo izena hartu zuen Futbol-zelaia eta hauekin batera, aisialdirako terraza eta taberna bat.<sup>56</sup>

50eko hamarkadan zehar eta futbol taldea ofizialki kirol lehiaketatan parte hartzen hasi aurretik, elkartearen ekimenak auzoko aisialdia kirol jardueratan emateko

aukera eskaintzera bideratu zen. Orduko ekimenen artean San Jose egunerako pres-tatzen zuen egitarau zabala aipatu daiteke, futbol lehiaketa bat, auzoa zeharkatzen zuen lasterketa bat (gerora San José kross-ean bilakatuko zena), kirol erakustaldi anitzak, pilota, haurrentzako jokoak... Nabarmentzekoa da egitarau hau auzoko Acción Católica-ko gazteria sailarekin elkarlanean antolatutakoa zela, izan ere honek, sozializazio esparru eta harreman sareek bat egiten zutela, gun e, elementu eta kide komunak zituztela erakusten du.<sup>57</sup>

1963. urtera arte, elkartearen kirol jarduera osoa futboleant zentratu zen, orduz geroztik kirol sail berriak agertuz joango ziren, patinajea (1963), eskubaloia (1964), txirrindularitza (1978)...

«**Armonia Txantreana**» lagunartea. Txantreako lagunartea 1956an jaiotzen zen, urte hartako Sanferminetako zezenketatarako abonamenduak erostearren, Felix tabernan elkartzen zen mutil talde gazte bat dirua biltzea erabaki zuenean.

*«Salió de mí después de jugar al mus en el Félix, con otro que... el Pila, solíamos jugar de parejas. Trabajábamos entonces para Buesa hermanos, y solíamos estar en el Félix, vino y [...] “oye, aquí para hacer una peña para San Fermín”, y sacó el paquete de tabaco, de... Ducados, y el lapicero de carpintero y empezó a apuntar. Y había Iraizoz, Casanova... todos esos estaban allí y avisé... y así empezó la peña.»*<sup>58</sup>

Abonamenduak erosteko dirua lortu eta 56ko Sanferminetan janzkera propioarekin *igo* ziren zezen plazara eta Txantrean, jaiak iraun bitartean, auzoa animatu zuten egunetik egunera. Auzoan ekimenak oihartzun handia izan zuen eta laster, 150 gazte baino gehiago batu zitzaizkien. Arrakasta hura ikusita, hurrengo urterako, Iruñeko beste lagunarte ofizial izatea eskatzea erabaki zuten.<sup>59</sup> Lagunartearen jaiotza eta arrakastak ezin hobe adierazten du auzoak lau urte eskasetan lortu izandako barne bizitza sozial dinamikoa. Hain zuzen ere, 1956rako auzoko biztanleek bakarrik osatutako eta auzoa Sanferminetan ordezkaturako zuen talde bat osatzea lortzea, auzoko harreman sareen hedatzearen adierazle interesgarria izan zen. Egia bada ere «*lagunartea soilik parranda eta umore oneko gauzatarako egin zela*»,<sup>60</sup> halako ekimen soil bat baliagarria izan daiteke hiriaren aurrean –Sanferminetan hain zuzen- Txantreako bizilagunek euren buruak auzo bezala nola identifikatu eta aldarrikatu zuten ikusteko. Kontra-koan, hiriak, auzoko bizilagunei buruzko irudi jakin bat osatu zuen, kasik Iruñeaz aparte zegoen bizilagun- komunitate batena. Irudi honen ondorioz, Txantreako taldeak Sanferminetako lagunarte bezala onartua izateko Iruñeko hainbat sektoreren oposizioa jasan behar izan zuen:

*«[...] no nos tenían mucha simpatía gentes que nos consideraban a los que vivíamos en la Chantrea como “desgraciados” y decían que éramos andaluces.»*<sup>61</sup>

Era berean eta Sanferminetarako antolatzen ziren jardueraz aparte, Txantreako lagunartea auzoaren bizitza soziala dinamizatu eta sustaturako zuen erdigune bilakatuko zen aurrerantzean. 60ko hamarkadak aurrera egin ahala, zenbait harreman sareen elkargune bihurtu eta ekimen sozial eta kulturalak bultzatzeko eremua egin zen:

mendi-taldea, txistulari taldea, *Boscós* txapelketarako futbol taldea, errondaila bat, karitate saila, euskal dantza talde bat, zinema jaialdiak...

Sozializazio espazio hauen sorrerak, biztanleen ekimenetatik jaioak eta garatuak izaterakoan, berez auzo-komunitatearen existentzia eta nolabaiteko dinamika adieraziko lukete. Zentzu honetan, esparru hauen sorrera abiapuntu bat baino ez da, bitzta sozial propioa garatu nahi zuen komunitate baten sorreraren baieztapena. Esparru hauen bilakaera, ordea, 60ko hamarkadan zehar eman zen, bitarte horretan, elkartasun eta harreman sareen zabaltzerako eta kultura komunitario baten hedatzeko erdigune egin zirenean.

**Erlijiozkotasunaren esparruak.** Auzoaren espazioan bitzta soziala antolatzen eta dinamizatzen lagundu zuen beste elementuetako bat erlijioa izan zen. Meza, erritu erlijiosoak, edota prozesioak gertaera sozial garrantzitsuak ziren auzoaren eguneroko bizitzan<sup>62</sup>. Lehenbiziko urte haietan txantrearra, espiritualtasun sakonekoa zen eta haren erlijiozkotasuna aktiboki erakusten zuen biztanleria zen:

*«En lo religioso nuestra zona estaba llena de gente buenisima y eran tremendamente religiosos, de tal manera que venían a la parroquia a pedirnos devociones tradicionales de su pueblo. Recuerdo que había un grupo bastante numeroso de Ujué y venían a pedirnos, exigirnos prácticamente que hiciéramos la novena de la virgen de Ujué. Seguían así sus propias costumbres, su religiosidad, eso duró mucho tiempo».*<sup>63</sup>

Jatorrizko herrietatik ekarritako honako erlijiozkotasun herrikoiak komuneko erreferentzia sozial eta kulturalak eman zizkien bizilagunei. Aipatu meza, erritu eta prozesioak, honela, berezko sozializaziorako esparru bezala funtzionatzen zuten, berauetan erlijiozkotasun herrikoia ohiturak eta oinarritzko kultura kristau berberak zituzten elementuek bat egiten zutelako. Are gehiago, erlijiozkotasun herrikoia eta aktibo honen esparruetatik irtengo ziren katolizismo sozial berriaren kulturak, auzoan hedatzeko erabiliko zituen harreman sareak: parrokia eta Acción Católicaren auzoko etxe-zentroa.

Etxeak eraikitzen hasi bezain pronto, 1951ko martxoaren 20an hain zuzen, auzoko San José elizaren lehen harria jarri zen. Ekitaldia amaituta, prelatuak langileentzako etxebizitzaren eraikuntza proiektu hura parrokiaren eraikuntzarekin biribiltzen zela esan zuen, eliza komunitate kristau batean oinarritzko elementua baitzen<sup>64</sup>. Beraz parrokia, auzoaren erlijiozkotasun espirituala eta soziala zein kulturala bideratzera zetorren.

Erljiozkotasunaren ezaugarri sozial eta kultural hori, parrokiak auzoan sustatu zituen kirol jarduera eta jarduera kulturaletan ikus ditzakegu. Parrokiatik martxan jarri ziren ekimenen artean Manuel Elvirak osatutako San José koralaren sorrera edota parrokiaren futbol taldearen osaketa nabarmentzen ziren, izan ere, hauekin parrokiak erlijiozkotasunetik haratago zihoazen jarduerak eta harremanak sustatzen zituen. Futbol taldearen kasua argia izan zen, auzoko gazteriari aisialdirako eta harremanak egiteko eskaintzeko helburuarekin jaioko baitzen apaizaren eskutik:

*«Estábamos aquí el club de la parroquia San José, pues vino el cura “Oye, a ver si nos juntamos gente para el fútbol... un equipo que jugaba después abajo, donde la serrería, donde estaba el ambulatorio viejo, ahí solíamos jugar a fútbol, de la parroquia san José [...] vino un cura y aquel quería coger a gente joven...”».*<sup>65</sup>

Honekin batera, Acción Católicaren etxe-zentroaren inaugurazioak –1955ean– bultzada handia eman zion katolizismo sozialaren eginkizunari. Zentro hark, Txantreako parrokoa zen Mariano Elarrereren hitzetan, auzoan lan eraginkor bat egitera zetorren, hein batean elizan egiten zuten lana hutsean espirituala zelako eta zabaltzen zuten zentro hartan, lana espirituala, soziala eta kulturala izango zelako; eta batez ere, zentroa auzokide guztientzako gune irekia izango zelako.<sup>66</sup> Hau da, Inaugurazio ekitaldian gotzainak eskatu bezala, zentro hura apostolutza sekularraren «mundu hobe baten aldeko» agindua auzora zabaltzeko erdigunea izan behar zuen.

Modu honetan, 50eko hamarkadan, apostolutza mugimendu berriek –HOACak batez ere– erabili ahal izango zituzten bi gune garatu ziren auzoan, parrokia bera eta bertatik antolatzen ziren jarduerak, eta batez ere Acción Católicaren zentroa.

HOACaren Txantreako taldea egonkortuta zegoen jada 1957 urterako.<sup>67</sup> Talde haren bitartez, katolizismo sozial berriaren gogoia hedatzen lagunduko zuen harreman sarea sortu zen auzoan. Txantreako zentroko militanteek, HOACaren metodoaren arabera fabriketan aplikatzen zen «begiratu, juzkatu eta ekin» agindua, auzoaren errealitatea ezagutzeko erabiltzen zuten eta errealitate hori aldatzeko konpromisoa auzokideengana zabaltzen zuten. Konpromiso horren hedatzeak, gerora auzoan martxan jarriko ziren ekimen herrikoï guztiak bideratuko zituen harreman sare sozial garrantzitsua osatuko zuen gutxika; honela, auzoko Bizilagun elkartearen, azokaren edota kristau-elkarteen sorreran HOACeko lehen talde horretako militanteak topatuko ditugu gehienetan.<sup>68</sup>

Neurri handi batean, auzo mailako HOACeko militantzia hau izan zen aurrerago garatuko zen harreman sareen norabide bikoitza, fabrikatik-auzora eta auzotik-fabrikara, ahalbidetuko zuen elementu nagusietako bat. Norabide bikotzeko sare hauek 60ko hamarkadaren amaieran eta 70eko hamarkadan indar handia lortu zuten, langile mugimendua, lan munduko gatazkatan, beren borroka eta aldarrikapenei eusteko auzo-espazioaz baliatzen hasi zenean. Langile mugimenduak eta auzoak bat egiten zuten langileek auzoaren esparruak euren ekintzak aurrera ateratzeko erabiltzen zituztenean. Honen adibide dugu hurrengo etapa batean, 1977an, sortuko zen Txantreako azoka; Auzoko Bizilagunen Elkartearen ekimenetik jaioa, denbora luzez funtzionatu zuen fabrika eta auzo ezberdinetako militanteen topagune bezala, non legezko espazio publiko batean elkartzen ziren eta langile mugimenduaren egintzaren dinamikak martxan jartzen zituzten:

*«el rastro parece una tontería pero nosotros dijimos, vamos a poner un rastro, pa que nos juntemos gente de aquí, gente de mil sitios que no nos podemos juntar... pero es una forma legal, te juntas ahí porque ahí hay un rastro... ahí se cocía de todo en el rastro; ahí cociamos las huelgas y cociamos todo [...] el rastro era... se empezó a hacer allá, en la plaza aquella de arriba, allá*

*se empezó a hacer el rastro, desde ahí ya se cambió, en vez de en la plaza, por algunas calles, después, se trajo aquí, a la avenida Corella, y después lo prohibieron, ya vieron que... al final se descubre el tomate [...] aquello era pues juntarte con los del barrio San Juan, con los de la Rotxapea, con los trabajadores de Potasas, con los de la Super-Ser [...] tú quedabas con tres o cuatro de una fábrica, el otro quedaba con otro de otra fábrica y organizabas las cosas; y ahí ibas valorando, como estaba la fábrica [...]*.<sup>69</sup>

Norabide bikoitzeko sareek ere, langileen greba edo borroka bat sostengatzen laguntzen zutenean funtzionatzen zuten. Auzoak eta auzokideek gatazketan agertu izan zuten elkartasunean eta bete izan zuen asistentziazko paperean zerikusi handia izan zuen katolizismo sozial berriak egindako kontzientziazio lanak, batez ere langile mugimenduko militante eta liderrak ziren auzoko HOACeko militante haiek lehenbiziko gatazketatik beren harreman sareak erabili zituztelako auzoaren inplikazio eta lankidetzeta lortzen hasteko. Modu honetan, langile mugimenduaren urte gatazkatsuenak eta gogorrenak etorri zirenerako, auzoko elkartasun sare hauek eta haien dinamika nola edo hala ezarriak zeuden jada:

*«yo por ejemplo me encargaba de la Txantrea, de los que trabajaban en la Txantrea, otro de los que trabajaban en la Rotxa, otro de no sé qué, pero en un momento concreto nos juntábamos todos a una hora en cada sitio [...] hicimos un reparto de comida, de pescáu, de garbanzos, de alubias, de azúcar [...] y se repartió dinero, pues alguno que estaba con mucha necesidad, pues le ayudabas. Yo tenía uno que, necesitábamos 20.000 pelas para hacer hojas, pues iba al taller y le decía, “chavalico, que necesito 20.000 pesetas”; cogía las 20.000 pesetas de donde las sacaba por allá... a los pocos días tira, otra vez... era uno que ganaba dinero a punta pala... no sé lo que habrá dado él, pero hasta que se casó, siempre [...]*».<sup>70</sup>

## 7. Txantreako historiaren berrirakurketa: komunitate baten konformazioa

Komunitate batek bere buruaz egiten duen irudikapena definitzen duen elementuetako bat, kanpotik komunitate horri buruz izaten duten irudia da. Kasu honetan, adierazgarria da bai garaiko prentsak eta baita ere erregimenaren propaganda politikoak helarazten zuten Txantrearen irudi zehatza: egunkariak maiz erabiltzen zituen «harresiaz bestaldeko auzo, langileen auzune edota Iruñearen hiri satelite» bezalako kalifikatzaileetatik hasita, Txantreak erakusten zuen *langile gaixoen* mesedetan gauzatutako etxebizitza politika erregimenaren garaipen gisara aurkezten zuen propaganda politikora iritsi arte. Batak zein besteak, argi eta garbi definitzen zuten Txantrea «langileen auzo» bezala.

Hau bera izan zen hasiera batean hiriak auzoari buruz egin zuen irudia. Iruñeko hainbat sektorek Txantreako lagunartearen aurrean hartutako oposiziozko jarreraren eta auzoko biztanleak «zorigaiztoko» eta «andaluziar»-tzat jotzen zituen aurreiritziaren atzean, hiriak auzoari buruzko osatua zuen irudikapen zehatz hori dugu: langile auzoarena, populazio xumearen eta zorigabekoaren egonlekuarena, etorkinen helmugarena... «bonbatxo galtzen» hiriaren irudia azken batean.

*«[...] decían uy de la Txantrea, uy de la Txantrea. No es en plan de cachondeo, “¿Dónde vives?” en la ciudad bombacho. Bombacho es como el buzo, esos pantalones azules que se atan con una*

*cuerta [...] “¿Dónde vives?” En la Txantrea, joder... casi era un insulto decir que vivías en la Txantrea [...] hablabas de la Txantrea y era como si dirías que ibas al infierno.»<sup>71</sup>*

Era berean, Txantreak bere buruaz irudi propioa osatu zuen ere. Irudimen kolektiboan errotuz joan zen auzoari buruzko ikuspegia, egunerokotasunean eta bitzako esperientzia komunitan oinarrituta, komunitate identitate indartsuan bilakatu zen denborarekin. Txantreak identitate propioa, auzo identitatea garatu zuen. Egia da komunitate hura klase terminoetan definitzera eramango duten harreman eta elkartasun sareen hedapena, sozializazio esparruen bilakaera eta katolizismo sozial berriaren zein tradizio ezkertiarreko kulturen zabaltzea, 60ko eta 70eko hamarkadan orokortuko diren fenomenoak direla; baina egia da ere Txantrea auzo eta klase komunitate izatera eramango duen prozesu horrek, lehen auzokideek 50eko hamarkadan bizi zituzten esperientzia kolektiboetan duela jatorria. Beraz, Txantrearen historiaren berrirakurketa honen helburua esperientzia kolektibo horiek azaleratzea eta auzo-komunitatearen osaeran jardun zuten lehenbiziko elementuak zehaztea eta aztertzea izan da. Egin ondoren, hizpide genuen komunitatearen konformazio prozesuaren hasieran gako izan ziren elementu nagusien arteko harreman honela uler daiteke:

1. Proiektuaren planteamendutik, Txantrea etxebizitza merkearen promoziorako nukleotzat ulertu zen. Lehenik eta behin Etxebizitzak babes erregimenean eraikitzeke ongintzako patronatu baten ekimena zelako, baina batez ere eraikuntza enpresetako langileei zuzenean eskainitako promozioa izan zelako eta eraikuntza metodoa berak, langile haien prestazio pertsonala, lehen momentu haietan Txantrean «soilik» langile populazioa ezartzea ahalbidetu zutelako.

2. Prestazio pertsonalaren bidezko eraikuntza prozesuak, langileek *elkartasuna*, *auzolana* eta *lan kolektiboa* bezalako kontzeptuak barneratzea eragingo zuen. Eraikuntza prozesuan langile guztiek egin beharreko ahaleginak eta sakrifizioak, langile, etxe, kale eta auzo-espazioaren arteko lotura sendoa garatu zuten. Azken batean, etxearen eraikuntzaren prozesuak iraun zuen bitartean, zerbait gehiago ari ziren eraikitzen, komunitatea.

3. Eraikuntza prozesuaren esperientzia kolektiboa konpartitzeak, prozesuan parte hartu zuten langileak elkarrekin parekatzea, berdintzea, ahalbidetu zuen. Alde batetik, jabetzan lortu ahal izateko etxea eraiki behar izanak, jatorrizko ezaugarri sozial berberak ematen zizkielako langile guztiei; eta bestetik, egunerokotasunean bizi baldintza latzei, norbanakoaren zailtasun antzekoei eta problematika kolektiboiei aurre egin behar izaterakoan, egoera sozial gogor berean jartzen zituelako auzokideak.

4. Txantrea hutsetik sortu zen auzoa da. Auzoaren bizitza sozialaren dinamikan harreman asko egiteke bazeuden ere, lehenbiziko bizilagunak alde aurreko harreman sare batekin etorri ziren euren jatorrizko tokietatik. Sare «informal» hauek, lagun taldeak, lagunarteak, edota lan esparruetan garatutako adiskidetasunak ziren.



5. Aldez aurreko harreman sare hauek eraikuntza prozesuan berritu eta zabaldu egin ziren. Lan-taldeen eraketa eta auzolanean aurrera ateratako eraikuntza lanek, lotura sendoak sortu zituen taldekideen artean eta lanean ari ziren gainontzeko taldeetako kideen artean ere.

6. Aldez aurreko harreman sare «informalak» eta eraikuntza prozesuaren bitartez sortutako sare berriak, auzoko bizitza sozialean batu eta garatu egin ziren. Sare hauetatik jaioko dira auzoko lehen sozializazio esparruak: Kirol elkarteak, auzoko lagunartea, parrokiak eta parrokiak antolatutako jarduerak, Acción Católicaaren etxe-zentroa eta auzoko HOACeko zentroa; gune hauek garatu zirenean, berauetan sareak berritu eta are gehiago hedatu ziren eta denborarekin, esparruak esperientzia elkartruckerako, militantzia politiko zein sozialerako, auzo elkartasunerako eta kultura eta ideien transmisiorako erdigune bezala funtzionatuko zuten.

7. Sozializazio esparruen bilakaera prozesuaren ondorioz, 60ko hamarkadan katolizismo sozial berriaren kulturak eta ezkerreko tradizio kulturek topo egiteko eta euren ideiak helarazteko kanalak aurkitu zituzten; kanal hauetan garatuko da komunitatea klase terminoetan definitzen duen auzo kultura propioa.<sup>72</sup>

8. Honekin batera, sareen norabide bikoitzak, hau da, auzoko harreman eta elkartasun sareen eta langile mugimenduaren militantzia sareen bat egiteak, auzoaren klase identitatea gorpuzten lagunduko zuen, bereziki langile borrokaren une gatazkatsu eta gogorretan, auzoa, langileriaren ekintzen eszenatoki eta sostengu bilakatu zelako.

## NOTAS

1. Thompsonen ikuspegiaren esperientzia da kontzeptu zentrala. Honen arabera, klasearen osaketa, esperientzia kolektiboaren metaketa prozesua izango litzateke, prozesu historiko bat. Klase esperientziak ikertzea beraz, klasearen osaketa prozesua ikertzea da. Zentzu honetan erabiliko dugu esperientzia kolektiboaren kontzeptua artikulu honetan. Ikusi, THOMPSON (1989), non britainiar langile klasearen eraketa prozesua ikertzerakoan, langile taldeek industria iraultzan bizi zituzten esplotazio esperientziak azaleratzeaz beste, langileriaren esperientzia hauek barneratzeko eta ulertzeko izan zuen marko kulturala aztertzen du klasearen eraketa prozesuaren oinarri teorikoak finkatzeko: alde aurreko kode kultural hauen eta esperientzia kolektiboaren uztartzetik, klase kontzientzia sortuko da, langile klasearen agerpen nagusia. Thompsonen ikuspegiari buruzko hausnarketa interesagarriak: KAYE (1989) 155-198. or., SEWELL (1994) eta STEADMAN JONES (1993).

2. Ikusi, besteak beste, BABIANO MORA (1995), BENITO DEL POZO (1993), eta batez ere, DOMENECH SAMPERE (2002), (2003), (2004) eta (2012), eta PEREZ (2001).

3. DOMENECH SAMPERE (2012), 32. or. Klase esperientziak bizitzeko eszenatoki diren heinean, euren burua klase terminoetan definitzen duten auzo-komunitatearen osaketa, autore honek sakonki jorratu duen hildoa da. Artikulu honen oinarri teorikoak, auzoari buruzko ikuspegi honetatik abiatzen dira. Aipatutakoak beste, ikusi ere DOMENECH SAMPERE (2002), (2003) y (2004).

4. DOMENECH SAMPERE (2002), 47. or. eta (2012) 65. or.

5. Erreferentziatzen hartu dugun, auzoetan sortzen eta bilakatzen diren harreman sareen eta hauek auzokideen ezaugarri sozial, kultural eta politikoekin dituzten harremanen inguruko planteamendu hau sakonki azalduta, DOMENECH SAMPERE (2002), 47-55 or., (2003), 95-99 or., (2004), 14-15 or., eta (2012), 64-70, or.

6. Etorकिनен eskutik auzoetara edota fabriketara heltzen zen ezkerreko tradizio errepublikaren zabalkundea, emigratio mugimenduen helmuga garrantzitsu izandako estatuko industriagune askotan eman zen fenomeno da. Hala ere, dinamika lokalak kontutan hartzea ezinbestekoa da hainbat tokitan fenomeno horrek agertuko zituen berezko ezaugarriak azaltzeko.

7. Katolizismo sozial berriari eta langile erakunde kristauari buruzko bibliografia zabalak eta aberatsa da. Aipatuzekoak dira, besteak beste, Eliza, Acción Católica, haren bilakaera eta orokorrean, katolizismo sozialari buruzko lanak, MONTERO (2009); Langile erakunde kristauen historiari buruzkoak, LOPEZ GARCÍA (1995); eta militante katoliko hauek langile mugimenduan eta frankismoaren aurkako oposizioan jokatu zuten papeari buruzkoak, BERZAL DE LA ROSA (2007).

8. 50eko hamarkadan Iruñeko HOACak erakutsi zuen jarduera funtsezkoa izan zen horretarako. Urte hauetan talde hauek langile eremuan aurrera eramane zuten lana (bilerak, ikastaroak, jaiak eta propaganda, bereziki) oso garrantzitsua izan zen, ez bakarrik langile mugimenduaren antolakuntzaren lehenbiziko oinarriak jartzeko, baizik eta batez ere, ikuspegi kristau eta antikomunista batetik izan arren, klasearteko borrokan, kapitalismoaren kritika zorrotzean, langile klasearen promozioan eta errealitatea aldatzeko konpromiso aktiboan funtsatzen zen mundu-ikuskerak bat zabaldu zuelako langileen artean. HOAC eta langile erakunde kristauek Iruñerriko langile klasearen osatze prozesuan izan zuten eragin eratzailerik eta kulturalik ikusteko, PEREZ IBARROLA (2009) eta SANTAMARIA BLASCO (1992).

9. Ezkerreko tradizio kulturalen eta katolizismo sozial berriaren kulturaren bilakera arakatzea ez da artikulua honen helburua. Kasu honetan, auzoaren espazioa, bi tradizio kultural horien topagune edo elkargune bezala identifikatzea interesatzen zaigu soilik. Auzo komunitateetan zein kultura politikoei eragiten duten eta elkarri nola eragiten dioten ikustea, etorkizuneko ikerketatan jorrazteko ildoak izango lirateke. Abiapuntu interesgarri bat, Kataluniaren kasurako, DOMENECH SAMPERE (2012), 45-50.or.

10. Auzoetan eta bizilagun elkarteetan langile erakundeek eta talde politikoei nola lan egin zuten ikusteko eredu bat, CHECA ARTASU (2005)

11. DOMENECH SAMPERE (2004), 15. or.

12. Berrirakurketa hau Txantrean Auzolan Kultur elkarteak egin duen auzoaren historian oinarrituta dago, ikusi Txantrean Auzolan Kultur Elkarteak (2002).

13. Iruñea eta Nafarroako eraldaketa sozioekonomikoaren epe eta ezaugarrien inguruan gehiago, CASPISTEGUI eta ERRO (1998) eta (2005), ECHEVERRÍA ZABALZA (1994) eta MENDIOLA GONZALO (2002).

14. Enpresa 60ko hamarkadaren hasieran sortu bazen ere, Gendulaineko meatze putzuak 1953an ireki ziren, beraz, lehenbiziko meatzariak 50eko hamarkadaz geroztik lan egin zuten Iruñeko arro potasikoan, Ikusi DN 1953-04-11, 1. eta 6. or., «Bendición e inauguración de la cuenca potásica de Guendulain y de los sondeos petrolíferos de Marcilla» eta PN 1953-04-11, 4 eta 6. or. «Potasa, realidad, petróleo, esperanza, las dos visitas que

hicieron ayer personalidades a Navarra». 1957an, Nafarroako potasak ustiatuko zituen enpresa bat sortzeko ardura eman zitzaion Industriaren Institutu Nazionalari, ikusi DN 1957-06-08, 1. or., «Se encomienda al Instituto Nacional de Industria la creación de una empresa para explotar las potasas de Navarra. Se espera alcanzar una cifra de producción de 200.000 toneladas de óxido anhídrido de potasio». Potasas 1960an jaiotzen.

15. Iruñeko hazkunde eta zabaltze prozesuari buruz gehiago, OLIVA eta ISO (2005), eta PEREZ eta SAINZ (2012). Harresiaz kanpo aurkitzen ziren Auzo eta egonleku zaharrei buruz gehiago, Iruñeko historiari buruzko lanetan, ARAZURI (1981) edota JIMENO JURIO (1995), eta batez ere, idatzi izan diren Iruñeko zenbait auzoetako historiari, Txantrean Auzolan Kultur Elkarteak (2002), ESPARZA eta URDANIZ (2008), ARROYO eta SUBIZA (2011).

16. Hamarkada osoan zehar zenbait ekimenen berri ematen da orduko prentsan etxebizitza multzoen inaugurazio ekitaldien iruzkinen bitartez. Txantrea 1950ean eraikitzen hasi zenetik, 1959an III zabalgunearen lehen harria jartzen den arte, etxebizitza multzo berrien inaugurazio eta asmoak etengabeak dira: Burlata, Atarrabia, Erriberri, Ribaforada, Lakuntza, Artaxona, Agoitz, Olazti, Kaseda, Etxarri, Etxauri, Tuterak, Etxabakoitz, Oibar, Altsasu, Lodosa, Irunberri, Arrotxapea, Castejón, beste askoren artean.

17. Etxabakoitz 1953an bat egin zuen Iruñearekin, hiriburuaren auzo berri batean bihurtuz. Periferiako kokaleku zahar batetik abiatuta, 50eko hamarkadan zehar auzoa, *Inquinasa* fabrikaren inguruan zabalduko zen, 54. urtean *Urdanoz* etxe-multzoarekin eta 58. urtean «Larrascuntzea»rekin, enpresak berak euren langileentzako etxebizitzak sustatu zituztenean. Ikusi DN 1954-07-07, 9. or. «Bendición y entrega de 20 viviendas protegidas a los empleados de *Industrias químicas de Navarra*» eta PN 1954-07-07, 8. or., «Ayer fue inaugurado un grupo importante de viviendas en Echavacoitz»; eta DN 1958-10-05, 1. or. «Anexión del término de Larrascuntzea a Pamplona. Inauguración de viviendas de Inquinas» eta PN 1958-10-05, 4. or., «Pamplona tiene un nuevo barrio: Larrascuntzea. Ha surgido por el espíritu social de la prestigiosa entidad *Industrias Químicas de Navarra*».

18. ISO eta OLIVA (2005), 141. or.

19. Hau izan zen Iruñeko Udalak, 1949ko Irailaren 26ko osoko bilkuran hartutako erabakia: «[...] La aportación del ayuntamiento se limitará a la cesión gratuita de los terrenos, cuyo valor total se abonará por el erario municipal, siendo cargo del patronato benéfico Francisco Franco todos los gastos de edificación y saneamiento precisos para la construcción total de las viviendas proyectadas. En caso de no edificarse el grupo de viviendas protegidas proyectado en los terrenos cedidos, estos o la parte de ellos que no utilice el grupo, podrá revertir al

ayuntamiento en cuanto este lo pida». Jasoa, Txantrean Auzolan Kultur Elkarte (2002), 81. or.

20. Jasoa, Txantrean Auzolan Kultur Elkarte (2002), 78. or.

21. Elkarrizketa, S.G., Iruñean (2009-05-13): «Había de todo... por ejemplo en el nuestro había albañiles, había fontanero, había carpintero... y estábamos los peones, ¿No? De pinche... yo en la obra era pinche».

22. Elkarrizketa, J.dl.C., Iruñean (2009-02-19): «Hicimos un grupo de 24. Seis o siete albañiles, bueno, no tantos, algunos nos hicimos aquí albañiles, que a mi me apuntaron de albañil sin ser albañil».

23. Elkarrizketa, N.M., Iruñean (2009-02-28).

24. Elkarrizketa, J.dl.C., Iruñean (2009-02-19).

25. Elkarrizketa, J.dl.C., Iruñean (2009-02-19). «Martinicorena» taldeari buruz gehiago, Txantrean Auzolan Kultur Elkarte (2002), 91. or.

26. Elkarrizketa, J.dl.C., Iruñean (2009-02-19).

27. Idem. Hutsegiteak ere langileak zerbitzu militarra egitera joan behar zutenean ematen ziren. Kasu hauetan, zerbitzu militarrek iraun bitartean taldekideek joandako lankidearen etxea eraikitzen zuten harentzat, aipatu langileak, baimenarekin zetorranean, ahal zuen gutzia aportatzen zuelarik.

28. Elkarrizketa, S.G., Iruñean (2009-05-13).

29. Elkarrizketa, N.M., Iruñean (2009-02-28).

30. 1953an Gendulaineko meatze putzuak ireki zirenean, putzuan lanean ariko ziren meatzarien egonlekua egiteko moduaren inguruan eztabaida eman zen: lehen aukera, langileak putzua inguruan inguruan herrixka bat osatzea zen, meatzarien herri bat; bigarrena, langileak iritsi ahal, Iruñerriko auzo eta udalerrri ezberdinetatik barreiatzea. Konponbidea: «[...] parece que se ha llegado a la decisión de que es mucho más conveniente que se amplíen los pueblos, con su poso de siglos de vida patriarcal, que no hacer que nazca un nuevo poblado con características que serían indudablemente distintas». Ikusi, «¿Un pueblo minero?», PN 1953-04-11, 4 eta 6. or. «Potasa, realidad, petróleo, esperanza, las dos visitas que hicieron ayer personalidades a Navarra».

31. Asko Txantreara bizikletak etortzen zen. Elkarrizketak, S.G., Iruñean (2009-05-13) eta N.M., Iruñean (2009-02-28). Martinicorena enpresako langileen kasua agerikoa izan zen, hein batean enpresa bera izan zelako langileei bizikletak eman zizkiena, lanetik ateratzerakoan, ahalik eta lasterren Txantreako obretara iritsi ahal izateko.

32. Ikusi Txantrean Auzolan Kultur Elkarte (2002), batez ere 86-98 orrialdeetako langileen testigantza ezberdinak.

33. Elkarrizketa, J.dl.C., Iruñean (2009-05-13): «[...] Y el agua que había... venga a sacar pozales de agua todas las noches... agua en pozales, de los cubos que había para hacer la masa, pozos que habían sacado chantrea, grava. Había balsas y ahí, con pozales».

34. Elkarrizketa, N.M., Iruñean (2009-02-28).

35. Langileei zutenean etxeak eskaintzeko dinamikan salbuespen izan ziren udal eta diputazioko funtzionarioentzako, hala nola gerra zibileko elbarrituentzako, patronatuak kontratatutako promotoreek zutenean eraiki zituzten etxeak.

36. Elkarrizketa, J.dl.C., Iruñean (2009-02-19). Auzoa esparru *ez-kapitalista* bezala identifikatzen da auzokideen kondizio sozialari dagokionean. Honek inplizituki Txantreko bizilagun *guztiak* langileak zirela adieraziko luke, are gehiago, kasu honetan *langileak* ziren adiera jakin baten arabera (bulegoko langileak ez baitira *langile* kontsideratzen zentzu horretan).

37. PÉREZ (2001), 74-78. or.

38. Kontsultatutako bibliografiaren arabera ez dirudi garai honetan Iruñeko kanpoaldean txabolaz osatutako auzo espontaneoak sortu zirenik, ikusi OLIVA eta RIERA (2003) eta OLIVA eta ISO (2005). Hala ere, kontutan hartzekoa da mende hasieratik, periferian, halako kontrolik gabeko eraikuntza anarkikoa agertzen hasi zela eta harresietatik kanpo, etxebizitza merkearen arazo azaleratzen zuten landa-etxeek eta nolabaiteko txabolez osatutako egonlekuak agertzen hasi zirela. XX. mendeko lehen herenean hasiberri zen Iruñeko etxebizitza merkearen arazoaren inguruan gehiago, PEREZ eta SAINZ (2012), 127-131. or. *Mochuelo* auzoaren kasua adierazgarria da zentzu honetan: putzuak, baratzak, etxolak eta txabolak agertzen hasten dira jada 20ko hamarkadaren hasieran, ikusi ARROYO eta SUBIZA (2011), 13-14. eta 33. orrialdeko argazkia.

39. Elkarrizketa, J.dl.C., Iruñean (2009-02-19).

40. Elkarrizketa, S.G., Iruñean (2009-05-13).

41. Jasoa, Txantrean Auzolan Kultur Elkarte (2002), 136. or.

42. Autobus lerroaren datu bitxi hau 1961eko Nafarroako gobernadore zibilaren memorian baieztatzen da: «El ayuntamiento de Pamplona publica mensualmente las altas de asentamientos pero referidas solo a los barrios extramurales. Su procedencia es de Jaén y de otras zonas del sur, es decir, el movimiento natural hacia zonas más altas de nivel económico, de jornales fijos, encontrando colocación por la demanda de obra existente principalmente en la construcción. Incluso se da el caso de la existencia de servicios de autobuses a tales fines entre Jaén y Pamplona. Igualmente, los billetes de caridad solicitados apuntan a los mismos lugares» AGA/Gobernación. Dirección General de Administración Local/44-11320 kutxa. Hiritarrak ere, Jaendik Nafarroarako emigrazio jarioaz oso kontziente izan ziren: «Recuerdo el cartel que había en el puente de la Magdalena en el que ponía a Jaén 1 Km o 2 Km... uno y medio o una cosa así» Elkarrizketa, S.G., Iruñean (2009-05-13).

43. «*Desd'el gallo de San Cernin*: Postales iluminadas. El puente de la Magdalena», DN 1958-09-06, 10.or.

44. LOPEZ eta MONTORO (2006), 272. or.
45. Elkarrizketa, J.dl.C., Iruñean (2009-02-19).
46. Ikusi LARRAZA MICHELTORENA (2006), 21. or., informe horren edukiak zehaztasun handiagoarekin azaltzen dira.
47. Don Manuel Elviraren hitzak, jasoak Txantrean Auzolan Kultur Elkarte (2002), 107.or.
48. C. -J.dl.C. elkarrizketatuaren bikotekidea- Iruñean (2009-02-19).
49. Honela deskribatzen zuen *Diario de Navarra*ko «Reporter»-ak Txantrea 1956. urtean: «El barrio de la Chantrea, hoy convertido en un extenso y hermoso pueblo, alegre y pintoresco, cuyos numerosos vecinos disfrutan de todos los servicios modernos además de los indispensables para el desenvolvimiento de la vida [...] existen casinos, piscinas, frontones, central telefónica, celosos guardas rurales y ahora se están terminando de construir un cine muy espacioso y un mercado magnífico con porches y todo. Y para que nada les falte a estos laboriosos y estimados habitantes de aquella extensa barriada, tienen hasta un orfeón muy notable. Todo ello sin contar con su hermosa parroquia y el colegio de las religiosas salesianas» DN 1956-03-09, 4. or.
50. Bizilagunen elkarte eta hauen aldarrikapen faltan, 50eko hamarkadan, *Diario de Navarra* eta bere «Reporter» atala askotan erabili izan zen harresiaz bestaldeko auzoetako bizilagunek, euren auzo eta herrietan pairatzen zituzten zailtasun eta gabezien berri emateko. Ikusi adibidez, DN 1958-10-30, 2. or., «Reporter: El día de ayer», Errotxapeako bizilagun batek bidalitako eskutitza, eta DN 1959-06-19, 2. or., «Notas del Reporter».
51. Adibidez: «[...] quedaron suspendidos los servicios de la central telefónica del extenso barrio de la Chantrea. Esta suspensión de servicios en un sector de la ciudad hoy tan importante por su extensión está produciendo muchos perjuicios a los habitantes del mismo [...] en la actualidad los vecinos de la populosa Chantrea tienen que subir a la capital si precisan celebrar conferencias, con las naturales demoras y trastornos [...] el tiempo va pasando y esos servicios no se reanudan [...] la Chantrea es en la actualidad un barrio de tal importancia que no puede hallarse privado de esos servicios telefónicos indispensables para el desenvolvimiento de la vida comercial, industrial y de los demás órdenes» DN 1958-12-31, 6. or. eta «El populoso barrio de la Chantrea [...] al llegar a las diez y veinte de la noche, queda incomunicado en cuanto al servicio público de transporte» DN 1959-07-31, 2. or.
52. Elkarrizketa, J.dl.C., Iruñean (2009-02-19).
53. Idem. Iruñeko *La Única* «peñari» buruz ari da.
54. Idem.
55. «En la Chantrea el domingo por la tarde, el Sr. Obispo bendijo el «Hogar de San Francisco Javier» del Frente de Juventudes de la barriada y entronizó el sagrado corazón de Jesús en el círculo de recreo de los trabajadores» DN 1952-08-05, 3. or.
56. «Inauguración de las instalaciones deportivas de la Chantrea» DN 1958-07-19, 3. or.
57. «Mañana día 19 se celebrará la festividad de San José, Patrón de nuestro querido barrio, la U.C.D Hogar Chantrea en colaboración con la J. M de Acción Católica ha organizado diversos actos», ikusi «Las fiestas de San José en la Chantrea» DN 1955-03-18, 5. or.
58. Elkarrizketa, S.G., Iruñean (2009-05-13).
59. «Animamos aquellos San Fermín en el barrio recorriendo el mismo en el carro de Ardanaz, tirado por su sufrido burro. Hizo impacto entre la juventud del barrio nuestro grupo y, pasados los Sanfermines, nos lanzamos en plan serio y reclutamos unos ciento cincuenta socios» Miguel Iraizoz Cía lehen presidentek idatzitako gutuna 1982. urtean, jaso Txantrean Auzolan Kultur Elkarte (2002), 113. or.
60. Elkarrizketa, S.G, Iruñean (2009-05-13).
61. Miguel Iraizoz Cía lehen presidentek idatzitako gutuna 1982. urtean, jaso Txantrean Auzolan Kultur Elkarte (2002), 113. or.
62. Ikusi DN 1952-11-30, 8. or., «Traslado procesional de María Auxiliadora a la Chantrea» edota «Magnífica procesión en la Chantrea» DN 1953-06-02, 2. or. eta «El barrio de la Chantrea. Solemne procesión de María Auxiliadora» DN 1954-06-02, 2. or.
63. Don Manuel Elviraren hitzak, jasoak Txantrean Auzolan Kultur Elkarte (2002), 107.or.
64. «Bendición de la primera piedra de la parroquia y las escuelas» DN 1951-03-20, 8. or.
65. Elkarrizketa, S.G., Iruñean (2009-05-13).
66. «La Chantrea cuenta con una nueva casa-centro de Acción Católica» PN 1955-12-20, 3 eta 10. or.
67. Elkarrizketa, E.A., Iruñean (2010-03-11). Iruñerriko HOACaren hastapeni buruz gehiago, PEREZ IBARROLA (2009) eta SANTAMARIA BLASCO (1992).
68. Elkarrizketa E.A., Iruñean (2010-03-11) eta ikusi ere «El adiós a Cecilio Goñi», *Iruñerrian Auzolan* 7.zkia, 2010ko martxoa, 24-25. or. Militante katolikoek langile mugimenduan, mugimendu sozialetan eta frankismoaren aurkako oposizioan eduki izan zuten garrantzia ikusteko, adibidez, BERZAL DE LA ROSA (2007) eta JULIÁ (1990), autore hauen beste lan askoren artean .
69. Elkarrizketa, E.A., Iruñean (2010-03-11). Azokaren jaiotzaren inguruan gehiago, GOÑI (2010), 24-31. or.
70. Elkarrizketa, E.A., Iruñean (2010-03-11). Ordurako jada, nafar langile mugimendu antolatua eta egonkortua zegoen, batez ere CCOOen funtzionamenduari esker, baina esanguratsua da, aipu honek adierazten duen moduan, auzoko HOACean aritutakoak ziren langile asko, CCOOen urrezko urteetan ere, militantzia eta auzo sareen erdigunean jarraitu zutela.

71. Elkarrizketa, J.dl.C., Iruñean (2009-02-19).

72. Sozializazio esparruen bilakaera eta berauetan ematen den katolizismo sozial berriaren eta ezkerreko tradizio kulturalen elkartzea, artikulua honen marko

kronologikotik at dagoen prozesu luzea da. Ondorengo ikerketek baieztatu beharko dute hizpidetzat erabili izan dugun auzoren eta komunitatearen adiera hau, Txantrearen kasuan, egiaztatzen den edo ez.

## REFERENCIAS BIBLIOGRÁFICAS

- ARAZURI, J. J. (1981): *Pamplona calles y barrios*, J. J. Arazuri, Iruñea.
- ARROYO, V. eta SUBIZA, B. (2011), *Historia y recuerdos del Mochuelo*, Lamiñarra, Iruñea.
- BABIANO MORA, J. (1995): *Emigrantes, cronómetros y huelgas. Un estudio sobre el trabajo y los trabajadores durante el franquismo (Madrid 1951-1977)*, Siglo XXI, Madrid.
- BAROGA, J. M. (1973): *La vida íntima de Pamplona. Los latidos de una ciudad* 1. eta 2. liburua (1950-1955) eta (1955-1960), Aramburu, Iruñea.
- BENITO DEL POZO, C. (1993): *La clase obrera Asturiana durante el franquismo: empleo, condiciones de vida y conflicto (1940-1975)*, siglo XXI, Madrid.
- BERZAL DE LA ROSA, E. (2007): «Católicos en la lucha antifranquista. Militancia sindical y política», *Historia del presente*, 10. zkia., 7-20. or.
- CASPISTEGUI, F. J. eta ERRO, C. (1998): «El naufragio de Arcadia. Esbozo del cambio social en Navarra durante el franquismo», Sociedad de Estudios Históricos de Navarra. Iruñean, 1998ko Irailean ospatutako Nafarroako Historiari buruzko IV. kongresua.
- (2005): *De agrícola a industrial 1939-2001*, Eunsa, Iruñea.
- CHECA ARTASU, M. (2005): «Forces antifranquistes per un barri: el cas del Bon Pastor (Barcelona)», Centre d'Estudis sobre les Èpoques Franquista y Democràtica, 2005eko urriaren 20-22aren bitartean ospatutako «La transición de la dictadura franquista a la democracia» kongresua.
- COLOMO UGARTE, J. (1992): «El desarrollo industrial y la evolución sindical en el periodo 1955-1975 en Navarra», *Príncipe de Viana*, 16. eranskina, 519-532. or.
- DÍAZ MONREAL, J. (1997): «La huelga general de 1951 en Pamplona», *Estudios de Ciencias sociales*, 10. zkia., 101-121. or.
- DOMENECH SAMPERE, X. (2002): *Cuan el carrer va a deixar de ser seu. Moviment obrer, societat civil i canvi politic. Sabadell (1966-1976)*, Abadia de Montserrat, Bartzelona.
- (2003): «La otra cara del milagro español. Clase obrera y movimiento obrero en los años del desarrollismo», *Historia contemporánea*, 26. Zkia., 91-112. or.
- (2004): «La formación de la identidad obrera bajo el franquismo. Materiales para un aproximación», *Desafectos: publicació d'història crítica*, 5. zkia.
- (2012): *Cambio político y movimiento obrero durante el franquismo. Lucha de clases, Dictadura y Democracia (1939-1977)*, Icaria Editorial, Bartzelona.
- ECHEVERRÍA ZABALZA, J. (1994): «Antecedentes de la Navarra actual: algunos elementos sobre la estructura social navarra en los dos primeros tercios del siglo XX», *Boletín Gerónimo de Ustariz*, 9-10. zkia., 31-54. or.
- ESPARZA, G. eta URDANIZ, I. (2008): *La historia escondida. Historia de los movimientos sociales en San Jorge-Sanduzelai, Umetxea-Sanduzelai*, Iruñea
- GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI, A. (2001): *La comarca de Pamplona: territorio, economía, sociedad e historia*, Mancomunidad de la Comarca de Pamplona, Iruñea.
- GOÑI, A. (2010): *El rastro de la Txantrea. El poder contra la cultura popular*, Asociación cultural Txantrean Auzolan, Iruñea.

IRIARTE ARESO, J. V. (1995): *Movimiento obrero en Navarra. Organización y conflictividad*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

ISO, A. eta OLIVA, J. (2005): «Las ciudades de Pamplona-Iruñea y su metamorfosis en el siglo XX», VVAA, *Pamplona metrópoli. 1930... modernidad y futuro*, EHAEOKo Nafarroako ordezkari-tza, Iruñea, 40-61. or.

JIMENO JURÍO, J. M. (1995): *Historia de Pamplona y sus lenguas*, Txalaparta, Tafalla.

JULIÁ, S. (1990): «Obreros y sacerdotes: cultura democrática y movimientos sociales de oposición», TUSELL, J. (koord.), *La oposición al régimen de Franco*, 2. liburua, UNED, Madril.

KAYE, H. (1989): *Los historiadores marxistas británicos*, Zaragozako Unibertsitatea, Zaragoza.

LARRAZA MICHELTORENA, M. M. (2006): «Leal, católica y carlista: Pamplona (1936-1959)», in LARRAZA MICHELTORENA, M. M. (zuz.), *De leal a disidente Pamplona 1936-1977*, Eunate, Iruñea.

LOPEZ GARCIA, B. (1995): *Aproximación a la historia de la HOAC (1946-1981)*, HOAC, Madril.

LOPEZ, D. eta MONTORO, C. (2006): «Cambios en la ciudad de Pamplona (1945-1975)», LARRAZA MICHELTORENA, M. M. (zuz.), *De leal a disidente Pamplona 1936-1977*, Eunate, Iruñea.

MATEOS, A. (2008), *La España de los cincuenta*, Eneida, Madril

MENDIOLA, F. (2002): «Entre los viejos y los nuevos moldes: cambio social y político en Pamplona y su comarca (1951-1981)», *Boletín Gerónimo de Ustariz*, 17-18 zkia., 211-250. or.

MONTERO, F. (2009): *La Iglesia: De la colaboración a la disidencia (1956-1975)*, Encuentro, Madril.

OLIVA, J. eta RIERA M. J. (2003): «Utopías y sentidos de habitar la ciudad dispersa: estrategias residenciales en el área metropolitana de Pamplona-Iruñea», *Zainak Cuadernos de Antropología y Etnografía*, 23. zkia, 137-153. or.

PEREZ, J. A. (2001): *Los años del acero. La transformación del mundo laboral en el área industrial del gran Bilbao (1958-1977). Trabajos, convenios y conflictos*, Biblioteca nueva, Madril.

PEREZ IBARROLA, N. (2009): *Langile klasearen konformazioa. Iruñea 1950-1962: hurbilpen bat*, Iruñea, 2009, argitaragabea.

PEREZ, N. eta SAINZ, Z. (2012): «Transformación urbanística y evolución socioeconómica de una ciudad», LARREA, A. (koord.), *Euskal Hiria: reflexión sobre la ciudad y las ciudades vascas*, ex –liburuak, Bilbo, 105-159 or.

SANTAMARÍA BLASCO, E. (1992): «Movimiento apostólico en Navarra (1946-1970)», *Príncipe de Viana*, 16. eranskina, 699-724. or.

SEWELL, W. (1994): «Cómo se forman las clases: reflexiones críticas en torno a la teoría de E.P Thompson sobre la formación de la clase obrera», *Historia social*, 18. zkia, 77-102. or.

STEDMAN JONES, G. (1993): «El proceso de la configuración histórica de la clase obrera y su conciencia histórica», *Historia social*, 17. zkia, 115-129. or.

THOMPSON, E.P. (1989): *La formación de la clase obrera en Inglaterra*, Crítica, Bartzelona.

TXANTREAN AUZOLAN KULTUR ELKARTEA (2002): *Txantrea. Sembrando vida en la piedra*, Txantrean Auzolan kultur elkarte, Iruñea.

VILLANUEVA, A. (1998): «La sorpresa navarra: mayo 1951», Sociedad de Estudios Históricos de Navarra. Iruñean, 1998ko Irailean ospatutako Nafarroako Historiari buruzko IV. kongresua.